

...eta!
Kitto!

2019-11-15

1088 zkia.

Herriko BERRIEMALE lanari agur

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

**BIZI
ASEGURUA**

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKi
ASEGURUAK

Gure familia beti
babestuta egongo
denaren **garantia**

GAMA SUV PEUGEOT

2018AN GORENERA HELDU ZIREN.
ESKERRIK ASKO POSIBLE EGITEAGATIK.



**PEUGEOT ETORMOBIL 2018ko
LIDERRA SALMENTETAN.**
ESKERRIK ASKO GU AUKERATU
GINTUZTEN **1.200** BEZERO
BAINO GEHIAGORI.

Oraindik garaiz zaude euretako bat izateko!

0 Km **UNITATEAK**
-ko STOCK-ean

Existentziak agortu arte



**PEUGEOT
ETORMOBIL**

ETORMOBIL BERGARA. Olabarrena auzoa, z/g • 20570 Bergara • Tel.: 943 10 17 17

ETORMOBIL EIBAR. Otaola Etorb., 22 • 20600 Eibar • Tel.: 943 20 09 66

ZIORLA AUTOAK. Santa Maña, 19 • 48215 Iurreta-Durango • Tel.: 946 21 71 30

www.etormobil.com



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzio@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– Lurrera erortzeko arriskua gure kaleetan –

Ipuruako Eroski-ko goiko parkingera heldu baino apurtxo bat lehenagoko aldapan, bertan dagoen jostailu-dendaren aurrean, lurra oso txarto dagoela salatu nahi dut. Ezin dut ulertu eta onartezina iruditzen zait lurra dagoen moduan egotea. Baldosak apurtuta daude. Aurrekoan handik pasatzerakoan mina hartu nuen,

eta jakin badakit nire moduko adineko beste lagun batzuk ere estropezu egin eta lurrera erori direla. Beraz, Udaleko arduradunei arazo hau ahalik eta arinen konpontzea eskatu nahi diet, erorketa eta istripu gehiago gertatu baino lehen.

K.L.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MEHE HARTU.- Gutxiagotzat hartu. *"Praka bakeruekin sartu nintzelako mehe hartu ninduten"*.

Burruka giroko esaldia. *"Mehe nartu najok"*.

MEHUNA.- Mehegunea, ahulunea. *"Harixa edo sokia meheunatik eteten da"*.

astean esanak

"Munduan dauden 196 herrialdetik, kristauak diskriminatuta daude 21etan, jarraituak dira 17tan eta jazarpena sufritzen dute beste 38tan. Munduko populazioaren %61 erlijio askatasunik ez dagoen erregimenetan bizi da. Aljerian bertan, gerra zibila orain dela 20 urte amaitu bazen ere, jarraipenak eta diskriminazioak hor jarraitzen du eta bada jendea fedea gaitik bizitza galtzen duena. Bederatzi Misiolari Aita Zuri martiri izan ziren eta bizitza galdu zuten gerra horretan, gu babesteagatik hil zituzten bertakoak kontatu barik"

(MIGUEL MARI LARBURU, MISIOLARIA)

"Facebook munstro erraldoi bat da; munduko jardun sozial, politiko eta komunikatioboaren parte handi bat kontrolatzen du. Ez dut uste jendea urrundu duenik zuzeneko harremanetan; ezberdintasunik ez dago sare sozialaren eta kalearen artean, gaur egun gauza bera da. Albisteak, memeak eta suminak zabalteko tresna bihurtu da Facebook. Albistea gehiago zabalte da erreazio bat jasotzen badu. Informazioa baino gehiago, informazio espektakulua zabalteko toki bihurtu da. Bere sasoian norberaren bizipenak gordetzeko modu bat ikusi nuen, argazkiak eta iruzkinak igotzeko. Orain ez dut erabiltzen, aspertuta"

(LUISTO FERNANDEZ, CODESYNTAX)

"Europa klase ertain, zuri, zahar pobretu eta haserretua bilakatzen ari da, migrazioa onartzen ez badu. Horri bere haserrea nolabait arintzeko etsai bat eskaintzen badiozu, eta etsai hori beltza bada, Afrikatik datorrena edo musulmana, zertarako gehiago pentsatu? Hori da pobreen aurkako gerra, langabezia haserrea. Europa aldatzen ari da eta orain arteko Europako gizarteak ez du berritu nahi, ez du belaunaldi aldaketa hori egin nahi. Egungo Europak iragana islatzen du, dagoeneko ez da existitzen. Sozialdemokraziak eskuin muturraren diskurtsoa asimilatu du, beldurrarena. Ze Europa utzi nahi diegu gure ilobei?"

(ANE IRAZABAL, NAZIOARTEKO KORRESPONSALA)

Errebalgo lanak amaitzeko lehiaketara 11 enpresa aurkeztu dira

Udalak aditzera emon dabenez, hamaika enpresa aurkeztu dira Errebalen balixo anitzeko eta kultur ekipamenduaren eraikuntza amaitzeko obren lizitaziñora: Altuna y Uria, Construcciones Murias, Construcciones Adolfo Sobrino, Obras Especiales Edificacion e Infraestructuras, Construcciones y Promociones Balzola, Acciona Construcción, Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, UTE Tecsa-Ondoan, UTE Errebal Iza-Campezo, UTE Ferrovial Agroman y Viconsas eta UTE Errebal Amenabar Lurgoien (azken laurak Aldi Baterako Enpresen Elkarte modura aurkeztu ditue proposamenak). Udalian aurkeztu dituen proposamenak aztertzen dihardue eta kontrataziño mahaixa hillaren amaieran biltzekua da, obraren ejekuziñua enpresa horretako bateri proposatzeko. Behin betiko adjudikaziñua martxuan egituko asmua dake. Lanak lizitatzeko etara zan aurrekontua 6.399.497 eurokoa da (BEZa barne).



Foru Aldundixak ixa millioi bat euroko ekarpena egingo dau Ipuruan



Diputaziñoko, Udaleko eta Eibar Foball Taldeko ordezkariak siñadura ekitaldixan.

Aste honetan siñatutako hitzarmenaren arabera, kopuru hori esleituko dau Gipuzkuako Diputaziñuak aurrez, harmailak eraberritzeko bigarren fasian emondako 320.000 euro, jarrittako diruarekin batuz gero. Oinguan 630.000 euroko ekarpena egingo dau Diputaziñuak Ipuruako harmailak eraberritzeko. Hitzarmena de los Toyos alkatiak, Denis Itxaso lehen diputatu nagusiordezkuak eta Amaia Gorostiza Eibar Foball Taldeko presidentiak siñatu zeben.

Proiektuak bost fase ditu eta, hortik, bi lehenak ixa amaituta da goz. Hirugarren fasian mendebaldeko harmaila barrixak doaz; 1.211 jarlekatatik 1.762ra pasatuko dira. Behian, bestalde, hainbat zerbitzu egongo dira: aparkalekua, gimnasioa, hedabidientzako espazio barrixak, aldagelak... Atzeko aldiak zelai gehigarria egongo da, aurrekuaren neurri bardiñekin. Era berian, hegoaldeko harmailak be birmoldatuko dira, jarleku kopurua 2.096tik 2.369ra pasatzeko. Fase horretako lan guztien aurrekontua 11 millioi eurokoa da; Diputaziñuaren horko ekarpena, gitxi gorabehera, kostu osuaren %5,90 da.

Kataluñiaren alde Donostian egingo dan ekitaldirako autobusa antolatu dabe

Euskal Herriko 60 bat herritan bezala, Gure Esku Dagoren ekimenez Eibarren be alkarrataratzia egin zan martitzen arratsaldian, Kataluñiari alkartasuna adierazteko eta "konponbidia, demokrazia eta askatasuna" aldarrikatzeko. Horrekin batera, domekan Donostian egingo dan mobilizaziñuan parte hartzera deittu dabe jendia: "Mobilizaziño garrantzitsuena domekan egingo dogu, Donostian. Egurdiko 12:00xetan abiatuko da, Gros auzoko Kataluñia plazatik, eta Bulebarreko kioskuan amaittuko da. Mobilizaziñuak bereizgarri bat izango dau: koloria; horiz, alkartasun kolorez jantziko dittugu Donostiako kaliak. Aterki horixak izango dira elementu nagusiñak, eta eskuragarri egongo dira ibilbidiaren hasieran eta amaieran. Deixa egitten dogu horiz jantzi



eta konplementu edota lazo horixak soiñian eruateko, alkartasun keiñu gisa, bai manifestaziñuan, baita epaiketak irauten daben artian be". Domekako mobilizaziñora Eibartik juan nahi dabene dako autobusa antolatzen dihardue: 10:30xetan urtengo da, Ego Gaiñetik, eta izena emoteko Guridi, Buenos Aires, Depor eta Beleko tabernetara juan leike.



...eta kitto!-k "Euskeraz Primeran!" kanpainia erungo dau merkealdixen azokara

Datorren eguazten goizian Toribio Etxebarria kalia zabalduko dabe Eibarko Neguko Merkealdien azokia eta aurten be han izango da ...eta kitto! Euskara Elkarteak, "Euskeraz Primeran!" kanpainiarekin "merkataritza eta ostalaritza euskeriaren erabilieria bultzatzeko asmuarekin". Eguazten eta eguenian goiz eta arratsaldean egongo dira azokan ipiñiko daben mahaixan eta barixakuan, barriz, goizez bakarrik. Esandakua arabera, "joaten dan jendiari Euskaldian erabili ziran hiru roletako batekin (ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo) identifikatzeko eskatuko jako eta, trukian, erosketak egittera doiazenerako oparixa emongo detsagu". Gaiñera, parte hartzen daben guztien artian Eibar Merkataritza Gune Irekiak emongo daben 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko dabe amaieran, barixaku eguardixan.

Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatzen daben azokia eguaztenetik barixakura bittartian egongo da martxan eta egunero goizeko 10:00etatik 20:00etara zabalduko dabe. Parte hartzera animatzen diran dendarixak eskintza berezixak egingo dittue, batzuk kalia, azokarako ipiñiko dittuen karpetan eta beste batzuk, barriz, euren dendetan.

asteko
376
 datua

Ikasenpresak eta 2.000 ikaslek hartu eben parte atzoko azokan. Ikasturte honetan 81 ikastetxetan dago martxan proiektua, 210 irakasle eta 5.400 ikaslerekin, eta 889 ikasenpresa sortu dira.

autuan

UDAL AURREKONTUA ONARTZEKO PLENUA

Astelehen arratsaldian, 18:00etan izango da 2019. ekitaldirako Aurrekontu Orokorra eta Eranskinak onartzeko plenua, udaletxeko batzar aretuan. Betiko moduan, nahi dabenak interneten, "streaming" bittartez plenua zuzenian segitzeko aukeria eukiko dau, Eibarko Udalaren web orrixan sartuta.



HAUTESKUNDIETARAKO HAUTAGAITZA

EAJ-PNVk jakiñarazi dabenez, udal hauteskundietan aurkeztuko daben hautagaitzan Amaia Albizu Llubiak parte hartuko dau.

Funeraria-Ehortsetze Mugica

EIBAR

Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortsze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
 Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

1) Kardiologia	10) Radiologia
2) Zirurgia	11) Urologia
3) Dermatologia	12) Traumatologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Koloproktologia
5) Anlisi Klinikoak	14) Erizaintza
6) Ortodontzia	15) Foto-depilazio
7) Otorrinolaringologia	Unitatea
8) Psikiatria	16) Ginekologia BERRIA
9) Barne Medikuntza	17) Psikologia BERRIA

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO



Isabel Fernandez izango da Eibarko Ahal Duguren alkategaixa

Udal Hauteskundieri begira abian izan daben barne prozesua amaituta, Isabel Fernandez Pejenaute izango da Eibarko Podemos Ahal Dugu alderdiko alkategaixa, alderdikide gehixenak hala erabagi eta gero. Feminismotik datorren hautagaixak erronkari pozik helduko detsala azaldu dau eta beragan ipiñi daben konfidantza eskertu nahi detse bere aldeko bozka emon daben guztieri.

EIBARRIN
PODEMOS.

Isabel Fdez. Pejenaute

Candidata de Podemos a la alcaldía de Eibar

Podemos Eibarko alkategaia



Blas Etxeberria kalian aparkatzeko proposamena

Josu Mendicute Eibarko EAJ-PNVko alkategaixak Blas Etxeberria kalian aparkatzeko toki gehixago lortzeko proposamena aurkeztu detse beste alderdixetako ordezkariexeri. Horren arabera, automobilak baterixan aparkatuz gero 15 automobilendako tokixa lortu leike. Gaur egunian aparkatzen dan moduan 9 automobil sartzen dira. Proposamena martxan ipintzeko obrarik ez dala egin bihar gaiñeratu dau, "lurrian plazak margotzia, besterik ez da bihar".

Eskola jangeletarako greba deittu dabe

Gestifo pribatua daken Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola jantokixetan, hau da, catering enpresen bittartez kudeatutakuetan grebara deittu dabe sindikatu guztiak. Greba deialdixa otsaillaren 26rako (martitzena) egin dabe eta bihargiñak egitten daben aldarrikapen nagusiña Hezkuntza Saillaren menpeko sukalde langillien baldintzekin "homologaziñua" lortzia da. LABek, ELAk, CCOOK eta UGTk dake ordezkarietza sektorian eta laurak alkarrekin hasiko dittue protestak eta, ohartarazi dabenez, aldaketarik egon ezian mobilizaziñuak gogortu egingo dittue.



Indarkerixa matxistari buruzko hitzaldixa

Datorren astian, egunian "Violencia de genero y trato entre iguales" izenburuko hitzaldixa emongo dabe Untzagako jubilaue txian, 19:00etatik aurrera. Ertzaintzatik juango dira berba egittera eta ekimena "Prebenziñua Komunikaziñotik" programaren harira antolatu dabe. Sarrera irekixa izango da.

Ego Ibarrek iaz batutako "testigantza paregabiak" jarri ditu sarian, biharraren memorixia batzeko ahalegiñian

Ignacio Ugartetxea (Ignacio Ugartechea SA), Pablo Aranzeta (Cerámica Eibarresa), Adela Telleria (Aurrera), Jose Antonio Albizu (AYA), Rafael Osoro Alberdi (AYRA Durex), Enrique Franco Albizuri (DEJ) eta Lorenzo Zabala eta Miren Lorea Lasa senar-emaztiak (Norma, Motobic-Precicontrol) dira "ondo egindako lan horren testigantzak" emon dituenak.

Lorenzo Zabala eta Miren Lorea Lasa senar-emaztiak Motobic, Norma eta Precicontrol tailerren sorreria eta nondik norakuez gain, sasoi hartako hainbat kontu gerturatu deskue: lehelengo lantegixa Aranen jarri zeben, "moto-bicicletatik Motobic izena etartzeko". Leku faltak tailar hura Txontara eramatia ekarri zeben eta, gero, 60. hamarkadan, Abadiñora. Precicontrol enpresa motorren ekoizpenerako

doitasun-erremintta faltak eragin zeben. Lorenzo Zabalaren esanetan, "sasoi hartan oso ohikua zan Eibarren norberak bere tailarra abiaraztia". Ignacio Ugartetxea arma-fabrikatzailliak aittak sortutako arma-fabrikari jardun zeben baskulak egitten, harik eta fabrika bere eskuetan geratu zan arte. "Armas Ugartechea"n produktua kalitateari emoten zetsen garrantzixa, batez be.

Osintxun jaixotako Rafael Osoro soldadutza amaitsu eta Eibarko Ayra Durex-en lantegixan sartu zan, autuentsako ordeko piezak eta "Destroyer" karabinak ekoizteko. Jose Antonio Albizu AYA-n hasi zan grabatzaillie, Jose Rodriguez "Errekalde"ren agindupian; 1985. urteko armagintza sektoriaren gainbeherarekin bere kontura hasi zen etxeko sukaldian, erretirua



Miren Lorea Lasa eta Lorenzo Zabala.

hartu arte. Enrique Francok DEJ enpresa sortu zeben beste bi lagunekin (Danel Zennarruzabeita eta Javier Sologaiztua). Lehelengo Errekatxun egon zan, gero Otaola hiribidian amaitzeko: "Ahal darian, dana; eta ezin darian, ahal dana" Eibarko esaera za-

har jatorra dakar Enriquek gogora. Azkenik, Pablo Aranzeta, Uberan (Bergara) jaixotzen izan zekala etorri zan Eibarrera. Cerámica Eibarresa lantegixan hasi izan biharrin, Paco Larreategiren eskutik, eta 2005. urtian itxi arte jardun zeben bertan lanian.

Errebal Plataformakuen deialdixa datorren martitzenerako




Hillaren 19xan arratsaldeko 19:30xetan egingo daben batzar hori Untzagako Jubilatuetarako lokaletan egingo dabe, "horretara bihurtuta". Plataformako kidiak billeria Coliseuan egitten ahalegindu ziran aurretik, baiña areto txikixetako batian egittiagaittik "Udalak 967 euro ordaintzia" eskatu zetsen. Horren aurrin, Errebal Plataformakuek (2008xan eta 2011n egin zeben moduan) Portalean egitten saiatu dira, "baiña hor be orduero 76 euro" eskatzen zetsen eta, azkenian, Untzagako Jubi-

latu-Etxera jo dabe: horregaittik, "eskerrak emon" nahi detsez lokalietako bat lagatziarren musutruk. "Auzotarrok biltzia ez detse grazia askorik egitten eta hortik hainbeste traba" antolatzaillien esanetan, "ataxakixa modura, Alkartien Erregistruan eta irabazi-asmorik gabekuenian ez gagozela ipiñi deskuen arren". Umoria be jokuan jarri dabe Errebal Plataformakuek: "Hainbeste urtetan aktibo jarraituko genduala jakin izan bagendu, plataformia legezatzera be joko genduan".

Kontsumo arduratsuari buruzko bideua leihan

Egoaziak eta Aldatzenek #IrauliGabonak TIPI-TAPA bagoaz!-ek antolatu daben laburmetrai lehiaketan parte hartzen dihardue, "¿Consumo responsable?" izenburuko lanarekin. Lehiaketara aurkeztu dituen zortzi bideuak www.facebook.com/mugarikgabe helbidera sartuta ikusi leikez eta jendiek botua emoteko aukeria daka, otsailaren 28ra arte. Facebook eta YouTube 'Atsegin dut' gehixen jasotzen dituen bideuak Publikuaren Sarixa (400 euro) irabaziko dau. Hori dala eta, eibartarrak animau nahi ditue botua emotera, ia sarixa irabazten daben.





FELIX MORQUECHO

(kazetari eta argazkilaria):

Eibarko informazioari lotuta eman ditu hogeitertirik gora Felix Morquechok, Diario Vasco egunkarirako lanean. Aurrerantzean, baina, Donostiako-erredakzioan jardungo du beharrean, ezustean horretarako proposamena ailegatu eta baiezkoa eman du eta. Gaur astebete nahi da lan berrian eta berarekin berbetan egon gara, herriko kronista modura egindako lanari errepassoa egiteko.

“Zaila egiten zait nire burua SAN ANDRES EGUN BATEAN argazkiak egiten ibili barik irudikatzea”

- Noiz eta nola hasi zinen kazetari lanean?

Beste askoren moduan, Unibertsitatean ikasten nengoela, praktikak non egin ahal nituen begiratzeko hasi eta Diario Vasco-k horretarako aukera ematen zuela pentsatu nuen, eskaera egin nuen. Eta horrela eman nituen bi urte, 1998koa eta 1999koa Eibarko DV-n praktikak egiten. Eta, horretan nengoela, ordura arte lanean zegoen Amaia Rosek laga egiten zuela eta, lanean hastea eskaini zidaten, baietz esan eta horretan jardun dut beharrean, orain arte. Egia esan, urte hori nahiko estresantea izan zen: azken azterketak, praktikak, lanean hasteko proposamena... dena pilatu zen!

- Garbi zenuen idatzizko prentsan jardun nahi zenuela?

Ez dut ondo gogoratzen, baina amak kontatzen duenez umetatik esaten nuen kazetaria izan nahi nuela. Edozein modutan ere, behin kazetaritza ikasten hasita, idatzizko prentsak besteak baino gehiago erakartzen ninduela nahiko argi nuen, ez nuen ikusten neure burua telebistan edo irratan lan egiten, horretarako behar den hitz jariorik ez nuen eta beti begitandu zaizkit zailagoak.

- Hasieratik ibili zara albisteak idazten eta argazkiak ateratzen, biak egiten?

Bai, lanean hasi nintzenetik gauza biak egin ditut. Batzuetan herriko gauzei buruz idazteko eskatzen zidaten, beste batzuetan argazkiak egitera joateko, kiroltako albisteak ere idatzi ditut... eta beste batzuetan albisteak idazteko eta argazkia egiteko, biak batera egitea tokatu zait.

- Izan ere, kazetaria izateaz gain argazkilaria ere bazara.

Ikasketaz kazetaria naiz, hau da, horretarako ikasketak egin nituen. Baina, horrez gain, argazkilaritza betidanik gustatu izan zait. Herri honetako zaletu askok bezala, Udalak urtero Klub Deportibokoekin antolatzen duen ikastaro horretan izena eman eta Jose Valderreyrekin ikasten hasi nintzen. Eta, hortik aurrera, argazki kamara hartu eta gehiago ikasten joan naiz. Izan ere, argazkilaritza gustakoa izateaz gain, kazetaritzan jarduteko baliagarria ere bazela ikusi nuen eta lanean gauza biak uztartzea egokitu zait.

- Eta zertan ibiltzen zara erosoago, idazten ala argazkiak egiten?

Biak gustatzen zaizkit eta bietan ondo moldatu naiz, baina bat aukeratzekotan argazkilaritza gehiago gustatzen zait. Idazteak asko exijitzen duela pentsatzen dut, albiste bat idazteak argazkia egitea baino lan gehiago eskatzen dizula esango nuke. Eta

gauza biak egin behar izanez gero, zaila izaten da bietan %100 ematea.

- Eta zer da zailagoa, albiste bat ondo ematea ala argazki on bat egitea?

Lan ezberdinak dira. Albiste bat idazteko, adibidez, ez da beharrezkoa gertatu den tokian egotea, informazioa hartu eta idatzi daiteke, han egon barik ere. Argazkia egiteko, berriz, han egon behar duzu nahitaez, alde horretatik albistetik gertuago zaudela esango nuke. Ni neure oso eroso ibili naiz beti argazkiak egiten. Gainera, horrenbeste urte eta gero, toki guztietan ezagutzen zaituzte eta horrek beti erretzen dizu lana.

- Argazkilaritza gustatu arren, egunkarirako argazkiak eskatu dizkizutenean badago sormenerako tarterik?

Prentsarako argazkiek funtzio informatiboa bete behar dute, beste ezer baino lehen. Hortik aurrera, zuk aukeratzeko duzu argazkia nola egin, beti ahalegintzen zara argazkiari zure nortasun marka ematen, baina beti argi izanda argazkiarekin eman beharreko informazio hori ezin daitekeela galdu. Jakina, eguneroko erronka hori izaten da: argazkiak informazioa ematea eta, gainera, estetikari begira irudia ederra izatea. Ideala hori litzateke, argazki batean gauza biak batera egotea.



Herriko ekitaldi eta jaietan Felix beti kamara aldean daramala ikustera ohituta gaude, baita edozein tokitara igota ere.

- Herri guztietan gertatuko den bezala, gurean ere badaude urtero errepikatzen diren hamaika jai eta ekitaldi. Bi hamar-kada eta gero, zaila izango da horrelakoetan irudi berriren bat lortzea, ezta?

Egia da urte batetik bestera ia aldatzen ez diren ekitaldi asko daudela, herriko jaiak eta beste hainbat. Horrelako kasuetan beti ahalegintzen zara buruari buelta batzuk ematen zerbait berria lortzeko asmoz, baina azken batean Arrate eguna Arrate eguna da eta, argazkia egiten duzunean, garrantzitsuena egun horren lekuko zarela, bertan zaudela da. Urtetik urtera gauza asko errepikatu arren, argazkiak beti izango dira ezberdinak, beti egoten da aldatzen den zerbait.

- Zergatik zara ezagunagoa, egunkarirako idatzi dituzun albisteengatik ala argazkiak egiteagatik?

Uste dut albisteak irakurtzean badagoela fijasen den jendea, baina azkenean jende gehienak kalean kamararekin atzera aurrera ikusten zaituelako ezagutzen zaitu. Edozein tokitara joanda ere, badakite egunkarirako argazkiak egiten dituzula.

- Urte guzti hauetan, badago bereziki gogoratzen duzun albisterik edo unerik?

Ez daukat gogoan bereziki azpimarratzeko moduko ezer. Egia da arrazoi ezberdinegatik pixkat bereziagoak diren gauza batzuk badaudela. Adibidez, istripu bat gertatu denean eta hara joateko esaten dizutenean. Horrelakoetan argazkia egitera joatea ez da batere samurra, batez ere hildakoren bat egon bada, egoera horretan zu zara "gaiztoa", gainera. Orohar, urte lasaiak izan direla esango nuke. Zerbait aipatzekotan, Eibar foball taldearen maila igoera esango nuke, horren aurretik egindako lanak hartu zuen garrantziarengatik. Maila igo zuenean

jende guztia hasi zen argazkiak egiten, baina ez zen gauza bera gertatzen aurretik, horrelakoetan konturatzen zara zein garrantzitsuak diren zuk lehenago egin dituzun argazki horiek.

- Hogei urte lanean eman eta gero, badakizu zenbat argazki egin dituzun?

Ba kalkulatu den 20.000 inguru izango direla. Kontuan hartu behar da hasierako urteetakoak kamara analogikoarekin egindakoak direla, digitalarekin lanean 2001. urtean hasi nintzen, baina orotara hortxe ibiliko da kopurua. Gehienak artxibatuta dauzkat eta horrek ere lana ematen du. Toki batetik kamararekin alde egiten duzula ikustean, askotan jendeak lana amaitu duzun galde-tzen dizu eta nik beti erantzuten dut gauza bera: "Hemengo lana bai, amaitu dut, orain etxean jarraitzea noa". Izan ere, ikusten ez den lan hori ere egin beharra dago eta oso



garrantzitsua da, gainera. Edozein argazki bilatu behar duzunerako ezinbestekoa da ondo artxibatuta egotea errez aurkitzeko. Demaseko amorrua ematen du bilatzen zauden argazkia hor dagoela jakin eta aurkitu ezin duzula ikusteak.

- Kazetari modura lanean hasi zinenetik hona, herriko informazioari lotutako aldaketarik ikusi duzu?

Aldaketarik handiena herriko komunikabideetan gertatu da, gaur egun hasierako sasoiari baino komunikabide gutxiago dago. Lanean hasi nintzenean herriko telebista bat zegoen, irrati emisora gehiago... horiek desagertzen joan dira eta, horren eraginez, gaur egun herrian sortzen den informazioa gutxi batzuren esku dago, alde horretatik lehen aniztasun gehiago zegoen.

- Herriko albiste berri ematen dutenen artean, hain zuzen ere, Diario Vasco dago eta askok estimatzen dute hori...

Kazetari moduan nik beti eman diot garrantzia gertuko informazioari, uste dut jende gehienari tokian tokiko albisteak interesatzen zaizkiola gehienbat, etxetik irten eta kalean zer aurkituko duen jakin nahi du.

- Oraindik egun batzuk baino ez dituzu eman lan berrian, baina nolakoa izango da aldaketa?

Hasteko, bakarrik argazkilari modura jardungo dut, ez dut albisterik idatziko. Hori izango da aldaketa nagusia, lanari dagokionez. Eta Donostian lan egiten duten beste eibartar mordoak bezala, autopista primeran ezagutuko dudala, egunero joan-etorrian kilometro asko egitea tokatuko zait eta. Bestela, aldaketa ezustean etorri zait eta gauza berriak egiten hasteko ilusioa daukat. Oraindik oso arraroa egiten zait nire burua San Andres egun batean argazkiak egiten ibili barik irudikatzea.

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 2004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikoa

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centreamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoaan
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORRETTAN

centro médico eibar



Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. esk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



Euskal Herria puntatik puntara zeharkatuko du Korrikak, euskeraren aldeko ekimen erraldoiak. 2019ko apirilaren 4an hasita, 11 egunean, Korrikaren 21. edizioak bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe, lekukoa eskuz esku pasatuz. **Apirilaren 13an, zapatuan**, igaroko da Eibartik. Aurreko edizioetan bezala, lasterketa martxan jarri arteko egunak girotzeko hamaika ekitaldi eta ekintza antolatu ditu AEK-k Euskal Herri osoan. Korrika Kulturala izango da eskaintza horren bizkarrezurra. Eibarko AEK-k egun hauetan eman du ezagutzera Korrika Kulturalaren harira gure herrian izango dugun egitaraua.

Apirilaren 13rako giroa berotuko du KORRIKA KULTURALAK

Ekarlana da KORRIKA Kulturalaren oinarria eta herritarrei dei egin diete Klika egin dezaten: *"Euskarazko kultura sortu eta kontsumitzeko Klika, euskal komunitatea sortzen jarraitzeko Klika, euskararen aldeko konpromisoari Klika"*. Aste honetan Eibarko AEK euskaltegitik ezagutzera eman dutenez, **Martxoaren 23an** (zapatua) hasiko da Eibarren Korrika Kulturala, Legarre Gain elkartean egingo den BERTSO-BAZKARIArekin. Legarreko jai batzordearen laguntzarekin antolatu dute saioa eta bertan Jokin Bergara eta Manu Goiogana bertso-lariek parte hartuko dute. Gai jartzaile lanetan Desireé Magrok jardungo du.

Martxoaren 28an (eguna), Eibarko XLII. Antzerki Jardunaldien barruan, *Lurrak* ikuskizuna eskainiko dute Coliseo Antzokian, 20:30ean. "LURRAK" antzezlanaren disziplina artistiko desberdinen arteko topaketa da. Antzerkia, musika eta zirkua elkarrekin dira, ikuslearentzako esperientzia berria eta bakarra izateko asmoarekin. *"Aire Aire, Gasteizko KaldeArte eta Bilboko Kalealdia-k bultzatutako egitasmoaren emaitza da Lurrak ikuskizuna, honako helburua lortu nahi duelarik: euskal kulturaren oinarritutako formatu handiko zirkua ikuskizun bat ekoiztea, bertako artistekin, kalitatearekin, edukiarekin, eta ikusgarritasunarekin"*.

Martxoaren 30rako, zapatu goizerrako, "EIBARKO MUGARRIAK" mendi irteera antolatu dute, Klub Deportiboarekin elkarlanean. Izen-ematea AEK-n egin daiteke (Sostoa 1 - 943 20 13 79 - eibar@aekeus).

Apirilaren 3an, eguaztana, "EUSKALDUN BERRIEN KLUBA" ikuskizuna hartuko du Portaleak. Arratsaldeko 19:00etan hasiko den ekitaldia...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzaz antolatu da. Olatz Pagaldai da antzezlea eta Idoia Etxeberria, aldiz, obraren egilea. *"Istorioko protagonista Irantzu da, euskaraz pentsatzen, euskaraz sentitzen eta, ahal duen guztietan, euskaraz diharduen neska eskoriatzarra. Horrek hamaika arazo sortuko dizkio egunerokotasunean eta bizipen horien kontaketa osatzen du antzezlanaren hari nagusia. Euskararen gaiari emakumearen ikuspegitik heltzen dio lanak eta, ildo horretatik, hizkuntza-transmisioaren, emetasunaren edota genero rolen inguruko gogoetak ere eragingo ditu, besteak beste"*.

Bi egun ondoren, **apirilaren 5ean** (barrixakua), "EUSLIDER" ekimenaren barruan, Eibarko DBHko ikasle guztiek antolatutako ekintzak egongo dira Untzaga plazan, goizeko 11:00etatik 13:30era arte. Arratsaldean KORRIKA TXIKIA ospatuko da. 15:15etik aurrera Eibarko ikastetxeetako ikasleak gelatik kaleetara irtengo di-



Sei estreinaldi izango ditu aurtengo KORRIKA Kulturalak, baina ehunka izango dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan antolatuko diren ekitaldiak. Informazioa: <http://www.korrika.eus/>

ra, batak besteari lekukoa ematen Korrikaren festa giroan murgiltzen hasteko.

Arrate Kultur Elkarte eta Aza eta Porruren laguntzarekin, irteera egingo da **apirilaren 6an**, zapatuan, ETXEBERRI GOIKOA BASERRIRA (Olaberria, Gipuzkoa), kontsumo arduratsua sustatu eta bertako ekoizleen lana ezagutzeko. Autobusa egongo da eta izen-ematea Arrate Kultur Elkartean egin daiteke (arratekultu@gmail.com).

Apirilaren 13an, KORRIKA Eibarren

Orain dela bi urteko edizioarekin konparatzen badugu, ordutegian eta norabidean desberdintasun nabariak igarriko ditugu aurtengo Korrikan. Iaz Bizkaia aldetik, Ermutik iritsi zitzaigun eta Sorraluzerako bidea hartu zuen. Aurten, berriz, Azitainetik sartuko da eta Ermurantz joango da ondoren. Gaeuz iritsi zaitzaigun 2017an Korrika, 23:00ak aldera. Aurten, 14:55ak aldera zeharkatuko ditu Eibarko kaleak. Hori bai, 2017an bezala, aurten ere zapatuan izango da euskararen aldeko ekitaldia. Kontuan izatekoa da, bestetik, egun berean Euskal Herriko Itzuliko azken etapa jokatu dela Eibarren (Untzagan hasi eta Toribio Etxebarria kalean amaituko da txirindulari lasterketa).

Denda Eibarko AEKn

Eibarko AEK Euskaltegian 21. Korrikako materialarekin denda prestatu dute, kamisetak eta bestelakoak erosi nahi dituzte-



BERTSO BAZKARIA
Martxoak 23



LURRAK
Martxoak 28



EIBARKO MUGARRIAK
Martxoak 30



EUSKALDUN BERRIEN KLUBA
Apirilak 3

Eibarren Korrika Kulturalaren harira antolatutako ekitaldiak izango ditugu martxoaren 23tik apirilaren 6ra bitartean.

nentzat. Astelehenetik barixakura zabalduko dute, 11:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Horrez gain, interneten, online-dendan erosteko aukera ere badago, www.korrika.eus/denda helbidean.

Txillardegiren omenezko dokumentala eta Korrika APPa

"Txillardegiren Klika. 21. KORRIKArako egindako dokumentala" ikusgai daukazue dagoeneko *youtuben*. Euskara batuaren 50. urteurrena dela baliatuz, eta omenaldia merezi duelakoan, 21. KORRIKak Txillar-

degi omenduko du. "Euskarak egiten gaituela euskaldun zioen Txillardegik, euskara herrigintzaren eta kulturagintzaren ardatz hartuta. Euskal Herriaren lurralde batasuna hizkuntza batasunetik hasten dela sinetsita, hizkuntza estandarren lehen sustaile izan zen".

Kulturalarekin batera, 21. edizioaren gailu adimendunetarako aplikazioa ere aurkeztu berri dute. Akting enpresak sortua, bertan egongo dira ikusgai emanaldi guztien datak, orduak eta lekuak; lasterketaren zehaztasun guztiekin batera.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

www.etakitto.eus

herriko ALBISTEAK
argazki BILDUMAK
BIDEOAK

WEB

AGENDA
KIROL-agenda eta emaitzak
KOMUNITATEA

www.etakitto.eus

Modan daude motordun bizikletak. Hiri handietan mugitzeko edota kirola egiten bizikletan ibiltzeko bultzada handiagoa izateko, *e-bike* direlakoak dira azken moda (eta bizikleta ekoizle batzuen hazkunde ekonomikoaren arrazoa baita ere). Motordun bizikletak, ordea, ez dira berriak Eibarren. *E-bikeak* baino lehenago belomotorrak izan genituen gurean, iraganean etorkizuna bizi izan bagenu bezala.

Etorkizunera itzultzen belomotorrarekin

Eibarko Armagintza Museoak 'Eibarko belomotorrak' izeneko erakusketas jaso du otsailaren 21etik martxoaren 31ra. Bizikletek garrantzia handia izan dute Eibarren historian zehar. Bizikletagintza herriaren industriaren ikurretako bat izan da, eta txirindularitzak momentu bereziak bizi izan ditu herriko kaleetan eta Arrateko maldetan. Motorrek ere toki berezia daukate eibartarron bihotzetan, eta *Lambretta* da horren erakusle garbiena. Bizikleta eta motorren arteko hibridoak ere egin ziren Eibarren, belomotorrak, eta gurean egin ziren mota honetako ibilgailuak bilduko ditu Museoko erakusketak.

'Eibarko belomotorrak' erakusketarako sarrera doakoa izango da eta Museoak doako bisita gidatua egiteko aukera eskainiko du hilaren 16an. 17:00etan bisita euskaraz egingo da eta 18:30ean gaztelera. Bisita gidatua egin ahal izateko 943 70 84 46 telefonora deituta edo museo@eibar.eus helbidera mezua idatzita eman behar da izena, eta talde bakoitzean 20 lagunek eman ahal izango dute izena gehienez.

60. eta 90. hamarkaden artean Eibarko enpresetan egindako piezak egongo dira ikusgai 'Eibarko belomotorrak' erakusketan. Esate baterako, *Beistegui Hermanosek* (BH) fabrikatutako 'mosquito' delakoa, *Orbearen VeloSolex*, *G.A.C.-ren Mobyletteen* hainbat modelo eta zilindrada txiki-ko *Lambrettak*. Horrez gain, sasoi hartako material grafiko eta publizitarioa ikusi ahal izango da.

Erakusketara antolatzeke orduan *Club Lambretta*, Agustin Lazarobaster, Manolo Murillo, Gaizka Iriondo, *CDRko* Jose del Rey, Lorenzo Zabala, Andoni Ayala eta *Motos Luis del Rey-ren* laguntza izan du Museoak, besteak beste.

Herrian egindako belomotorrak


Lehen motordun bizikleta eibartarra *Motobic* izan zen, 1946. urtekoa, eta 50. hamarkadan Eibarko bizikleta enpresa nagusiak ziklomotorrak egiten hasi ziren, merkaturuan zuten presentzia handituz. 1950an, adibidez, *Echasa* enpresak bi abiaturako



lresa motorra jarri zion *Stark* izeneko bizikletari; eta 1952an eibartarrantzat ikurra izan den *Mobylettea* etorri zen, *G.A.C.-k* patente frantziarra erosi ondoren.

Urte berean, 1952an, *Alfa*, *ABC* eta *Valenciaga Hermanos* enpresek *scooter* motorrak egiteko sozietatea sortu zuten *Innocenti* marka italiarraren lizentziarekin: *Lambretta Locomociones*. 1954an hasi ziren ekoizten gaur egun ere gure kaleetan ikusgai dauden motor eibartar hauek. Bestetik, *AyraDurexek* urte horretan *Master Ciclo* delakoa egin zuen.

Orbea, bere aldetik, *VeloSolex* ziklomotorra ekoizten hasi zen 1957an. Frantziako *Solex* enpresarekin akordioa lortu eta gero hasi zen ibilgailu berria egiten, baina bidea ez zen erraza izan. 1956an, *Orbeako* ordezkariak *Solexek* Courveboien (Parisetik hurbil) zuen fabrikara lizentzia negoziatzera joan zirenean, aurkako harrera jaso zuten langile frantziarren aldetik. Sasoi zailak ziren, lan-gatazkak oso ohikoa ziren eta sindikatuek kapitalaren ordezkari bezala hartu zituzten Orbeako ordezkariak. Hala ere, *Orbeak* eta *Solexek* akordioa sinatu



zuten, baina eibartarrek oztopo gehiago aurkitu zituzten fabrikazioan. *Orbeakoen-tzat* ezezaguna zen fabrikazio-prozesua, eta ibilgailua egiteko beharrezkoak ziren hainbat pieza (motorra eta bizikletaren kodroa, adibidez) Hendaia eta mugako mendietatik kontrabandoan pasatu behar zituzten. Azkenean, *Monsieur Wilson Sollexeko* ingeniaria *Orbeara* etorri behar izan zen fabrikazioaren ingeniaritza martxan jarri eta teknikoak prestatzeko.

Zenith karburagailua


Carbureibar eta *Lambretta Locomociones* enpresentzat berebizikoa izan zen *Zenith 20 MX* karburagailua aukeratu du Museoak otsaileko pieza gisa. 1958an sortutako *Zenith* karburagailua *Lambretta* markako lehen ziklomotorrentzako egin zen.

Eztanda-motorra osatzen duen pieza bat da karburagailua, eta bere funtzioa airea eta erregaia neurri egokian nahastea da motorreko errekuntza-ganberan sartu bai-

no lehen. Karburagailua XIX. mendearen erdialdean asmatu zen eta XX. mendeko 80ko hamarkadan, goi-zilindradako ibilgailuak eta gasolina-injektoreak agertzean, garrantzia galdu zuen pixkanaka. Hainbat adituren ustez, ordea, eztanda motorrak berreskuratu egingo dira aurrerakuntza eta ikerketa berriengatik, eta mikrozirkuituen erabileraren ondorioz.

LAN-ESKAINTZA

no+vello
EIBAR




**Nahiko zenuke
gurekin lan egitea?
Estetizista zara?**

**no+vello-n
zure bila gabiltza!**

BALORATUKO DA:

- Estetizista TITULUA
- ESPERIENTZIA laser depilazioan edo IPL-an
- Merkatal DOHAIK
- EUSKARA maila ona

Interesatuak bidali
CURRICULUMA:
eibaregogain@
nomasvello.com

*jesus gutierrez*

“Belaunaldi eredugarri hartako adierazle handiena Toribio bera izanda ere, asko izan ziren Eibarren aurrerapenaren alde egin zutenak”

“Viaje por el país de los recuerdos”

Toribio Etxebarria hil zela eta berak egindako liburuen artean oihartzun handiena izan duenak publikatu zela 50 urte betetzen diren honetan Ego Ibarrek lana berrargitaratu du laugarren edizioan. Egilea sasoi hartako eibartar polifazetikoaren prototipo nabarmena da: kezka politiko eta kulturekin, Eibar maitatuz, internazionalista, Alfako sustatzailea, euskerarekin konprometitua, etb., baina Etxebarria hitz bakar batean definitzekotan humanista deituko nioke.

Ez dut ukatuko aipatutako eremuetan berak izandako lorpenak, Toribio Etxebarria “Errenazimentuko gizakitzat” jotzen duguna zelako. Bere kezkek hainbat arlotan arduratzera eta ikertzera eraman zuten, baina berrargitaratutako lan horretan balore humanistak dira garrantzi gehien hartzen dutenak, bere ideario politiko eta kultur formazioaren gainetik.

Berak kronika kostunbristatzat jotzen zituenak indarra hartu du-

te denborarekin, XX. mendearen hasierako Eibarren zelan bizitzen zen jakitea ahalbidetzen digun bitxia gure eskuetan jarrita. Baina ez gaitu orduraino eramaten gertaera aipagarrienen bitartez bakarrik; liburuan, bestalde, gertakizunek protagonistak direnekiko lotura estua erakusten dute, eta hor dago bere balio handiena: Eibarko sasoi distiratsuen erdi-erdian pertsonak jartzea.

Toribiok ondo asmatzen du pertsona horiengan oinarritzen den gertatutakoen zergatia azaltzeko, pertsonak izan zirelako Eibar hainbat arlotan ekintzailatza eta berezitasun eredu. Horri helduz, azpimarratu behar da belaunaldi horretako adierazle handiena Etxebarria bera izanda ere, beste asko izan zirela Eibarren aurrerapenaren alde egin zutenak. Belaunaldi eredugarri bateko ki-deak ziren, liburuan hobeto ezagutu ditzakegunak: euren kezka, ardurak eta gogoekin... Guztiak ere hainbat arlotan Eibar erreferentia izatera eraman zutenak.

*enrike sosola*

“Europako hainbat herrialdetako Naturatik Hurbileko Basogintzarekin, basoaren kudeaketa sistema horrek hamaika onura ekarriko liguzke”

Zuhaitzik ez denean, agian, basoa ikusiko dugu

Zuhaitz asko dugu Eibarren. Aitzitik, ez dugu ganorazko baso edo oihanik. Pinu-landaketek garai bateko pagadi, harizti, haltzadi, amezti, urkidi, lizardi, gaztainadiak ordezkatu dituzte. Baina pinudia arboladia da, ez basoa.

Izan ere, basoa sistema bat da, elkarrekintzan dauden elementu askoren multzoa. Alde batetik, adin desberdinetako zuhaitzak daude basoan: erne berriak, gazteak, zaharrak eta hilak. Bestetik, bioaniztasun handia dago. Landare, onddo eta animalia espezie ugari bizi da bertan. Euren arteko elkarlanari esker basoak zura eta lur emankorra ekoizten ditu bere burua betikotzeko. Atsedenek hartzen ez duen lur-eta zur-faktoria itzela da oihana.

Pinuaren monolaborantzak ez du lur emankorrik sortzen. Guztiz kontrakoa, lurreko aberastasuna irentsi egiten du. Horrela, pinuak ez du gure lurarekin eman-hartu harremanik izan. Hartu egin du, baina ez du eman. Hamarkada gutxiren ondoren, lurreko elikagairik gabe gelditu eta ahuldu egin da, makaldu, eta bere etsai naturalek aukera probestu dute erasotzeko.

Egurrari ez diogu kalitate eskatu, papera egiteko erabili dugu eta prezioak behera egin du. Ez dugu zuhaitzia zaindu eta gaixotu egin zaigu. Ehundaka urtetan, aurreko baso zaharrek sortu zuten emankortasun-aitxorra agortu denean, pinua gosetu eta gaixotu egin da. Pinu-arboladirik gabe geldituko gara urte gutxitan. Agian, orduantxe, zuhaitzik ez denean ikusiko dugu basoa.

Urtarrilean Arrate Kultur Elkarteak hitzaldi interesgarria antolatu zuen. Bertan, “Kolore Askotako Basoaren” mugimenduko kide batek bidegurutzean gaudela aipatu zigun. Zirt edo zart. Euren proposamena azaldu ziguten: Naturatik Hurbileko Basogintza. Europako hainbat herrialdeen ildoari jarraituz, basoaren kudeaketa horrek hamaika onura ekarriko litziguke gure egingo bagenu, besteak beste: kalitatezko zura eraikuntzarako, energia sortzeko biomasa, aisialdirako natur-guneak, CO₂-aren kontrola, uraren emaria, uholde- eta sute-arriskuak ekiditea, kalitatezko lanpostuak...

Gogoan hartu: “Kolore Guztietako Basoa”.

ELIKADURA, GAZTEON ARDURA

OTSAILA



GAZTEON!

...ETA KITTO!

Egilea: Malen Illarramendi

IRATI SAMPAYO
(Barazki-jalea)

ZALOA OTADUY
(Nutrizioan aditua)

ELIKADURA, GAZTEON ARDURA

McDonald's, Telepizza, Burguer King eta aurrez prestatutako janaria eskaintzen duten antzerako kate handien izenak entzutean gazteak etortzen zaizkigu burura, itxura batean, horiek baitira erabiltzaile edo kontsumitzaile nagusiak; izan ere, elikadura zaintzea ez omen dago euren lehentasunen artean. Baina, benetan horrela ote da? Ala gazteon artean ere gero eta ardura handiagoa dago elikaduraren inguruan?

Zalantza horren inguruko informazioa jasotzeko, batetik, Zalóa Otaduy farmazialari eta nutrizioan adituarengana jo dugu, gazteen artean janariaren inguruko kezkarik sumatu duen azal diezagun; bestetik, gazte baten testigantza izango dugu: Irati Sampayo, barazkijalea bera.



Argi eta garbi azaldu du Iratik zertan datzan barazki-jalea izatea, duela 4 urtetatik jarraitzen baitu bizi-filosofia hori: "Okelia eta arraiña kenduta, danetik jaten dot. Egixa da, esniakin adibidez, ez hartzen saiatzen naizela ahal doten neurrixan (kalian kafe bat hartzen badot, berdin da, baina etxian soja eta olo-edariak edo antzerakoak hartzen dittut)". Txikitatik izan du ideia hau buruan Iratik, gurasoei betidanik esan die berak horrela jan nahi zuela, eta egun batetik bestera, txi-pa aldatu eta nahi zuen moduan elikatzen hasi zen. "Beti euki dot animaliekiko enpatia, ez jata ondo iruditzen zelan

egitten diran gauzak, eta nik uste dot nere aletxoa jartzeko modua hori dala", dio berak

Gaur egungo gazteek zein elikadura ohitura jarraitzen duten galdetuz gero, Zaloak zera dio: "Nahiz eta gaztiekin erlaziño askorik ez dakaten, entzuten dotena gustatzen jata, badago gogo bat osasuntsuago jateko eta natura zaintzeko". Beraz, badirudi gazteon artean elikadurari jaramonik ez egitearen ustea ez dela guztiz egia, adituaren hitzetan "badago aldaketa polit baten susmua". Zaloaren ametsetako bat bere proiektua gazteoi helaraztea da. "Izugarri gustauko jatan gazteon interesekuak diran proiektuak prestatzia, haien kezkak eta zalantzak argitzeko eta laguntza eskaintzeko".

Iratik ere badaki kontzientzia apur bat badagoela gazteon artean. "Gaur egun informaziño asko daukagu, gure gurasuen sasoian agian ez zeguana, eta pentsatzen dot horrek kontzientzia bat sortzen dabela jendiarengan". Kontraesana dela dio Iratik, batetik, gai honekiko kontzientzia hain zabaldua egotea, eta bestetik,

jendeak ezikusiarrena egitea askotan. "Norberak badaki zer dagan janari prozesatuaren atzian, eta, agian, kapitalismuak bultzatuta edo, ezikusiarrena egitten dabe askok".

Moda kontua?

Moda kontua ote hau guztia? Zaloak garbi dauka: "Beti funtzionatu dogu moden inguruan, baina moda bat bada be, oso moda polita iruditzen jata. Oker-rraua izango zan McDonald's eta holakuekin elikatzeko moda sortuko balitz". Adituak dio norberak aukeratu behar duela zer eta nola jan nahi duen, baina ezinbestekoa dela argi izatea McDonald's eta horrelakoak ez direla elikagaiak, eta badagoela naturak emandako elikagaiekin elikatzeko modu oso osasuntsu eta polit bat".

Iratiri, ordea, ez zaio buruan sartzen norbaitek moda kontuagatik erabakitzea horrelako dieta bat jarraitzea. Horrelako bizi-filosofia bat jarraitzeko, oinarri batzuk argi izan behar direla uste du: Zergatik egingo dut hau? Zeintzuk dira nire arrazoiak? Aholku bat eman



Zalóa Otaduy





Irati Sampayo

nahi izan dio gazte honek buruan horrelako ideiarekin bat daukan jendearekin hartu erabakia, hau ez da txorakeria bat, eta oso inportantia da ondo informatuta egotia”.

Osasuntsu jatea merkea da

Esan beharrik ez dago diruari ere begiratu behar zaiola kontu honetan; gazteok bereziki. Ondo jatea garestiagoa al da? Zaloak guztiz ukatu digu hori: “Oso konprobata dakat merkia dala osasuntsu jatea; gertatzen dana da nahiko gaizki egiten dugula konparatzen,

egia da ekologikuak garestiaguak dirala. Kontua, baiña, zera da: etxian aleak eukitzia (zekaleak, lekaleak, fruitu siquak), eta barazkixak eta fruituak erostia. Hori dana oso merkea da”. Zaloak behin eta berriz azpimarratu du naturak emandako elikagaiak jatea merkea dela, garestitzea produktu prozesatuak sartzeak dakarrela.

Gehiengoarekin alderatuta elikadura-ohitura ezberdinak izateak zer sentiarazten du? Iratik ez dauka zalantzarik: “Nik bestiena errespetatzen doten moduan, bestiak neria errespetatzen dabe. Norbait tek zeozer esaten bada, beti diñot gauza bera: zuk zuria eta nik neria. Horrez gain, gauzak argi izanez gero, ez da iñungo enbidiarik sentitzen bestien platera ikustian, neri askoz gehiago gustatzen jata nere platerian egoten dana”.

Gure bi protagonistek esan bezala, kontzientziaz hartu beharreko gaia da. Askotan pentsatzen dugu beganoa edo barazkijalea izatean nutrizio-ga-beziak izan ditzakegula. Zaloa-

ren kontsultara eta nutrizio-eskolara, Farmacook-era, guraso asko hurbildu ohi dira aholku eske, semeek edo alabek elikadura-ohiturak aldatu nahi dituztenean, eta ondo dago kezka hori izatea; hala ere, dieta-ohitura guztietara zabaldu behar dugula ardura hori uste du nutrizio-eskolako arduradunak; izan ere, oinarri sendo batzuk denok behar ditugu, jaten duguna jaten dugula, ondo elikatzeke

Farmacook gazteongana hurbiltzea da Zaloa Otaduyren ametsetako bat. Gazteei zuzendutako aholku bat eman nahi izan du. “Osasuntsu jatea super polita da eta oso erraza, galkua osagai egokixak aukeratzea da. Gaztien esku dago mundu hau aldatzea, emoten dau dana galduta daguala, baina janari aukeraketa zuzena eginda, al-daketa haundixak egin leikez norberarengan eta bestiengan.”

Gauzak horrela, zaindu ditzagun gure jateko ohiturak, gure gorputzaren eta osasunaren mesedetan: jaten duguna omen gara, beraz, pentsa dezagun zer izan nahi dugun.

ERREPORTAJEA ONLINE

Protagonisten hitzak gertuagotik ezagutu nahi badituzu, edota irakurri beharrean nahiago baduzu bideoz ikusi... ez ezazue galdu YOUTUBE-n “gazteOn! eta kitto” kanalean dagoen bideoa.

Hona hemen esteka:


<https://youtu.be/DyhKlo6mQsl>

Zer dakigu guk?

Argitu ditzagun zalantzak. Zer jan daiteke dieta begetariano bakoitzean? Eta zer ez?

Dieta mota	Animaliak	Arrautzak	Esnekiak	Eztia
Arrautza-esne-begetarianismoa	EZ	BAI	BAI	BAI
Esne-begetarianismoa	EZ	EZ	BAI	BAI
Arrautza-begetarianismoa	EZ	BAI	EZ	BAI
Beganismoa	EZ	EZ	EZ	EZ

Zer arrazoik bultzatuta erabakitzen du jendeak horrelako dieta bat jarraitzea?



gaztekitto



gazteOn! eta kitto



...eta kitto!



MADDALEN YARZA

Milaka aurpegiaren artean

Madrilera etorri nintzenetik, pixkanaka mundua zein azkar doan konturatu naiz. Egunero, nire unibertsitate-raino ordubeteko ibilbidea egiten dut, eta estaldurarik gabeko geltokietara iristerakoan, bista altxatu ohi dut nire inguruan daukadana begiratzeko. Gustuko dut metroa eta ekosistema berean sartzen ez den nolabaiteko "fauna".

Badago linea bat Madrilén, hiri guztia inguratzen duena; bertan nagoenean, interesgarria iruditzen zait finantza gunetik datorren emakumea, eta unibertsitatera doan rastadun ikaslea bata bestea- ren alboan jarrita ikustea. Badakit "Cuatro Caminos" geltokian betiko musikariek saltsa joko dutela eta aitona- rekin doan ume negartiaren arre- ta bereganatuko dutela. Irribarrea irteten zait emaku- me haurdun bati tokia uzte- ko bi lagun bata bestea- ren gainean jarrita ikustea eta igarri dezaket nola alboan dud- an gizonak irakurtzen nagoen liburuaren izena be- giratu duela.

Badirudi, nolabait, hiriak inoiz baino gehiago ni neu sentiarazten nauela eta ohartu naiz ez dela behar- rezkoa toki batekoa izatea, nahikoa dela jendetza da- goen leku batean ezkuta- tu ahal izatea neure burua ondo ezagutzeko.

Eibar-Alaves 2. Mailako lehen postua jokoan domekan Unben

Liga amaierarako erabakigarria izan daitekeen partidua jokatu da etzi eguerdian Unben, 12:00etatik aurrera (ETB). Eibar eta Alaves berdinduta daude emakumezkoen 2. Mailako euren multzoko sailkapenaren goren-gorenean, orain arte 15 partidua irabazi eta bi berdinduta. Athletic-eko bigarren taldea zortzi puntura dute eta Osasuna bederatzira.

Lehen postuak ziurtatzen du 1. Mailarako igoera play-offa jokatzea eta horren bila dabilta talde biak. Lehen itzuliko partiduan, Jordi Telletxearen neskek bana berdindu zuten Gasteizen, partiduan aurrea hartu eta azken minutuetan jasotako gol batekin. Horrela, domekan Unben irabazita, hiru puntu gehiago izateaz gain gol-averagede ere alde izango lukete.



Multzoko bi onenen arteko lehia izango da etzi eguerdian Unben.

Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketaren jardunaldiak Eibarren

Eibarko Klub Deportiboak, Gipuzkoako Xake Federakuntzarekin elkarlanean, Eibar aldeari dagokion Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketa antolatuko du Eibarren domeka honetan eta hurrengoan (hilaren 17an eta 24an). Txapelketa adin tarteka jokatu da, 2005 eta 2010 urteen artean jaiotako haurrekin. Informazio gehiago barixakuetan Eibarko Klub Deportibora joanda edo xakea@deporei-



bar.com helbidera idatzita lortu daiteke.

Taldeko txapelketak

Deportiboko 1. Mailako taldeak galdu egin zuen Gipuzkoako taldeko txapelketaren bosgarren jardunaldian Donostiako Fortunarekin. Jon Esturok bere partida irabazi egin zuen, Mikel Larreategik berdindu, eta Jon Aranak eta Jose Antonio Garridok galdu egin zituzten eurenak. 3. Mailan jo-

katzen duen bigarren taldea, bestalde, garaile izan zen Azkoitiko Anaitasuna Kakute taldearen aurrean. Adrian Martinekoren, Oier Garcia eta Aitor Beorlegik irabazten jakin izan zuten, Lander Ajak berea galtzen zuen bitartean.

Bihar 1. mailako taldeak Hondarribi-Marlaxka izango du aurkari Deporren 16:00tan hasiko den neurketan, eta 3. mailakoak Arrasaten jokatu du, Arrasate Arlutzen aurka.



Jon Osa Lurralde artekoan lehiatuko da asteburuan

Eibar Igerixan taldeko igerilariak gaurtik domekara arte jokatu diren junior eta infantil mailetako Espainiako Lurralde arteko VII. igeriketa txapelketan hartuko du parte. Ea zortea duen! Bestalde, bihar teknifikazio jardunaldia izango da Donostiako Paco Yoldi igerilekuetan, 11:30etik aurrera, eta han izango dira Eibarko lau igerilari: Maddi Maguregi, Malen bebode, Lucia Gabilondo eta Iker Calvo.

Elurtza handia eta zero urdinaren kontrastea Ezkabako Ihesaren 3. etapan

Mendian ibiltzeko egun polita izan zuten aurreko zapatuan Saigots-Sorogain-Aurizberri etapa egiteko bildu ziren Eibarko Klub Deportiboko 30 lagunek. Saigotsetik irtenda, Arga ibaia zeharkatu eta Larrabeltzeko mendi magalean zehar igo zuten, Erro gainean Done Jakue bidearekin bat egiteko. Elurrez estalitako pista batetik jarraitu zuten Soroeta, Ezkutabil, Erdiko Hegi edo Elorditik zehar La Salveraino, Tiratungo mendi-lepora iritsi aurretik. Handik, Kizaun mendi-leporaino jaitsi ondoren, bere gainean Oiartzuri edo Egietako Gain (1.235 m.) izeneko mendiak lotu zituzten. Jaitsieran Lizartzu le-



Periko Iriondo

poraino (1.052 m) heldu ziren, eta handik Bide Handi bidetik iparrerialdera jo zuten, "pagadi bikainean zehar" Sorogainera heldu arte. Bertako aterpetetik, azkenik, GR 11 hartu eta Aurizberrira iritsi ziren egindako ibilaldiari amaiera bikaina emateko.

Asteburu betea izan zuten Takuai taldekoek, emaitza bikainekin

Zapatu gauean III. Ogiberri Saria izan zen jokoan Hondarribiko Higuier itsasargiaren inguruan, hiru kilometroko ibilbidearekin. Proba bi modalitatetan jokatu zen: bikejoring eta txakurkros. Lehenengoan Fabian Castrok halako lasterketan debuta egiten zuen Luna txakurrarekin hartu zuen parte eta, zapatu arratsaldean 10. izan eta gero, domeka goizean seigarren helmugaratu zen. Bi egunetakoak batuta, zazpigarren geratu zen sailkapen orokorrean. Txakurkrose-



an Andoni Isusik zapatu gaueko lasterketa irabazi zuen Balto txakurrarekin, frontalekin

osatu beharreko proban. Andoni Mayo eta Zeus 18. postuan helmugaratu ziren, baina

30 segundoko zigorra jaso eta gero, azkenean 26. geratzeko 60 parte-hartzaileen artean.

Domekan, bestalde, Euskadiko Txakurkros Ligako azkenaurreko proba jokatu zen, 7'2 kilometroko distantziarekin. Andoni Isusik Tyson-ekin egin zuen antxintxiketan: eguraldiak ez zien lagundu, erori ere egin baitzen Andoni, baina hala ere hirugarren iritsi zen helmugara eta Gipuzkoako txapela jantzi. Andoni Mayok, bestalde, 18. postuan amaitu zuen.

Sei garaipen, berdinketa bi eta hiru porrot Eibar Eskubaloiko harrobiko taldeen artean

Azken jardunaldian Eibar Eskubaloiko ia talde guztiek izan zuten partidua, tartean baita senior mailako hirurek ere. Hor, seniorretan, garaipen bi eta Somosen porrota eman zuen jardunaldiak: 1. Maila Nazionaleko partiduan, ez zen Somosen eguna izan defentsako lanean eta sailkapenean berekin berdinduta zegoen Uharteren kantxan 29-23 galdu zuten eibartarrek. Ipuruan jokatu

zuten emakumezkoen Eibar Eskubaloiak eta Haritzak, bestalde, nagusi izan ziren euren partiduetan: 30-25 eta 32-27, hurrenez hurren. Harrobikoaren artean, euren multzoetan titulua lortzeko borrokan diharduten talde biek irabazi egin zuten oraingoan ere: kadete mailako mutilen Teknikerrek 36-30 gainditu zuen Gasteizko Corazonistas eta infantil mailako nesken Ametsak gaiza bera



Kadete mailako Tekniker Eibar Eskubaloia bikain dabil.

egin zuen Zarautzekin (19-10). Beste lau garaipenak honakoa izan ziren: jubeniletan nesken taldeak lortutakoa Ereintzaren aurrean (25-20) eta ka-

deteetan Komateko nesken eskuratutakoa Leizaranekin (16-11) eta mutilen Urkotronik-ek (23-14) eta Bossak Egian lortutakoak (20-22).

Julen Teran kroslaria hirugarren geratu da Gipuzkoako Kopan

Eibarko Klub Deportiboko atletak, beste taldekide batzuekin batera, Ordiziako Oianguko zelaietan jokaturako Euskadiko kros txapelketan hartu zuen parte eta, bertan lortutako emaitzarekin, azkenean hirugarren amaitu du Gipuzkoako Koparen sailkapenean. Irungo, Eibarko (Bolunburu), Elgoibarko (Mugerza), Lasarteko eta Oianguko krosetan lortutako puntuekin osatu dute sailkapen hori.

Bestalde, Donostiako belodroman jokaturako Errege eta Erreginen Koparen barruan, eskolarrentzat ere proba pare bat antolatu ziren, tartean 4x100 erreleboak, eta hor parte hartu zuten Deporrek mutilen eta nesken taldeek.



Deporreko atleta gazteak Ruth Beitiarekin.

Ondo sufrituta, baina Urbat garaile izan zen waterpolo lau partiduetan

Etxeko partiduan eroso, baina kanpokoetan larri ibili ziren herriko waterpolistak. Kadeteak izan ezik (20-1 irabazi zioten Orbean Larrainari), azken asteburuan Urbatek jokaturako beste hiru neurketak gogorak izan ziren eibartarrentzat: seniorretan, emakumezkoen taldekoek 6-7 irabazi zioten Irunen Bidasari, sei segundoren faltan Ezozki Akizuk gelditutako penalti bati esker. Gizonezkoen taldeak 9-11 irabazi zion aurkari berari (Bidasoa XXI), lehenengo zatian 3-1 atzetik joan eta gero; eta, azkenik, jubeniletan, Urbat 6-8 nagusitu zitzaion Leioan Askartza Claret-i, hirugarren zatian 6-4 galtzen joan ondoren.





Emakumezkoen errugbi taldea Ohorezko B mailara igo da partidu guztiak irabazita

Ez da erraza Avia Eibar Rugbyko emakumezkoen taldeak orain arte egindako ibilbidea errepikatzea, denboraldiko lehenengo faseko partidu guztiak irabazi dituzte-eta. Horrekin batera, ondo merezitako maila igotzea lortu dute eta martxoan eta apirilean jokatuko den Ohorezko B Mailan jardungo dute. Cristina Guntinen neskek ez zuten partidu erraza izan Gamarran, Gaztedikoek gogor

egin zirelako aurre; hala ere, azkenean eibartarrak nagusitu ziren (21-48). Orain beste erronka bat dute aurrean Avia Eibar Rugbykoek, datozen bi hilabeteetan jokatuko den ligan lehen biren artean sailkatzea, eurek bakarrik izango dutelako Ohorezko A Mailara igotzeko aukera. Meritu handiena jokalarientzat bada ere, klubekoek eskertu nahi dute "Aviak eta Guridik eskainitako laguntza".



Merche Gilek arkuaren onurak azpimarratu ditu

Eibarko tiralaria bigarrena izan da Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan eta arku-tiraketak osasunerako dituen abantailak adierazi ditu: "Onkologoek ere bularreko minbizia izan dutenek arku praktikatzera izandako onurak azpimarratu dituzte, bularreko giharretako zelulak (besoetakoekin batera) hobeto eta lehenago birsortzen direlako. Bizkarreko minendako ere lagungarri izan daiteke". Gilek lau urte dihardu kirol hori praktikatzeko eta Ermuko Beti Ondo taldearekin lehiatzen du: "Nire semea ere taldean dago, Eibarko beste batzuekin batera". Denboraldia irailean hasi eta maiatzean amaitzen da eta Ermuko Anaitasuna ikastetxean entrenatzen dute, "hiru aldiz astean".

Jugger modalitateko Nukleoen arteko IV. Ligako jardunaldia jokatu zen

Aurreko asteburuan jugger ligako jardunaldi berria jokatu zen Zaragozan eta han izan zen gure herriko Arima Galduek parte hartzen. 16 taldetik, 14. postuan sailkatu ziren eibartarrak, bi partida irabazi eta 13 galduta. Ez zuten egoera onenetan jokatze aukerarik izan, partidak jokatze sei jokalaririk ez zituztelako izan, "eta ba-

tean bostekin egin behar izan genien aurre aurkariei". Guztira 30 aldeko tantu lortu zituzten eibartarrek eta kontrakoak 139 izan ziren; falta larrien kopurua, bestalde, 9koa izan zen. Lortutako puntuak, guztira, sei izan ziren Arima Galduek-ekoentzat. Datorren hilaren azken egunean, martxoaren 31n, finala jokatu beharko dute.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Getafe (gaur, 21:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Eibar - Alaves (etzi, 12:00)

2. B Maila

Vitoria - Amorebieta (bihar, 17:00)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Tolosa - Eibar (bihar, 15:45)

Ohorezko Erregional Maila

Amaiak Bat - Eibar (bihar, 16:30)

1. Erregionala

Urki - Zarautz (bihar, 17:45)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

San Juan - Eibar (etzi, 11:30)

Euskal Liga

Loyola Indautxu - Eibar B (bihar, 18:30)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Deustu (bihar, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

Larragest Sporting - Ipur (bihar, 09:00)

La Jara - Bar Areto (bihar, 10:30)

Azkena Adahi - Bar Txoko (bihar, 12:00)

Slow XOK - Feredu Solutions (etzi, 09:00)

Garajes Garcia - Chic (etzi, 10:30)

Durango - JMR Erreformak (etzi, 12:00)

ESKUBALOA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Beti Onak (bihar, 19:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Ordizia - Eibar Eskubaloia (etzi, 12:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Urnieta Artola - Haritza (bihar, 18:00)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 3. Maila

Avia Eibar - Saski Axular (bihar, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - WP Donostia (gaur, 21:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Leioa - Urbat IKE (etzi, 13:20)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN
asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako

Bizi guztia kirola egiten pasa ondoren, Ander Romaratek goia jo zuen 2012ko Londreseko Paralinpiar Jokoetan. Bi diploma irabazi zituen Erresuma Batuko hiriburuan. Kirol zientzien karrera egin du Romaratek, eta igeriketa utzi ondoren beste kirolari batzuei lagundu nahi die bere ametsak betetzen. Horrela, SD Eibar Fundazioaren laguntzarekin garun paralisia eta adimen urritasuna duten pertsonekin bi foball talde osatu dituzte.



Foball talde JATORRENA

Ander Romarate ezin da geldirik egon. *“Beti gustatu izan zait gauzak egitea, mugitzea”*. Egonezin horren ondorioz desgaitasunaren eta kirolaren inguruan ikertzen hasi zen eta ikusi zuen Gipuzkoan garun paralisia zuten pertsonekin osatutako foball talde bat zegoela, baina desagertu egin zela. *“Aspaceren laguntza jasotzen zuen taldea zen eta Aspacek taldearen aurrekontuari aurre egin ezin zionez desagertu egin zen”*.

Romaratek harreman estua izan du Eibar KE-rekin, SD Eibar Fundazioak babestu egin zuelako bere kirol ibilbidearen

zati batean Kirolgiren bitartez, eta harreman estu hori aprobetxatuz bere proiektuaren berri eman zien. *“Eibar KE horrelako proiektu bat gauzatzeko lehen taldea izatea nahi nuen”*. Eibar Fundazioak begi onez ikusi zuen Romarateren proposamena eta lanean jarri ziren.

Romarateren hasierako asmoa garun paralisia duten pertsonen foball taldea sortzea zen, baina aldi berean LaLiga LaLiga Genuine txapelketa sortu zuen (adimen urritasuna duten jokalariek osatutako taldeentzako liga) eta Eibar KE-k talde bi ateratzeko erronka botatzen Romarateri. *“Ezetz*

esaten ez dakidanez, aurrera egin eta talde bi ateratzea erabaki genuen, garun paralisia dutenena eta adimen urritasuna dutenena”.

40 jokalarri baino gehiago

Eibar Fundazioak Atzegirekin (adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak) akordioa sinatu zuen adimen urriko jokalarrien taldea osatzen laguntzeko. *“Hala ere, taldean badaude Atzegitik kanpo dauden jokalarriak ere”*, dio Romaratek. Bestetik, garun paralisia duten jokalarrien taldea garun paralisia dutenek eta burmuineko gaitza duten pertsonek (*“garun paralisia bezala, baina*

istripu baten ondorioz sortu dena”, Romarateren berbetan) osatzen dute.

Garun paralisia dutenen taldea aurrera ateratzea gehiago kostatu zaie. *“Azken finean, garun paralisia baino adimen urritasuna duen pertsona gehiago dago. Gainera, desgaitasunak fisikoki ere eragin egiten du eta horrek foballean jokatzeke aukerak murrizten ditu”*. Adimen urritasuna dutenen taldeak 30 jokalaritik gora ditu eta garun paralisia dutenen taldeak 12. *“Beraz, garun paralisia dutenen taldeak aurretik ez du liga jokatuko. Gauzak ondo egin nahi ditugu eta lehiatzeko prest egoteko denbora*



gehiago behar badugu, itxarongo dugu". Hala ere, taldeak astean behin entrenatzen du eta datorren urtera begira prestatuta lanak egingo ditu lehian hasteko gogoz. "Gure asmoa oinarria jartzea da eta, horretarako, jokalariek lortu eta mar txan jarri behar ditugu. Urte amaieran lagunartekoren bat jokatzeko da asmoa".

Adin guztietako jendeak osatzen ditu talde biak, eta emakumezkoek eta gizonezkoek elkarrekin hartzen dute parte. "Bereizketak egiten hasten ba-

Donostian
 egin zuen
 aurkezpena
 Eibar
 Fundazioaren
 taldeak.
Eibar KE



Ander Romarate (ezkerrean) da proiektuaren arduraduna. **Eibar KE**

gara, taldeetako jokalariek kopurua asko jaitsiko litzateke. Kirol egokitan horrela izaten da orokorrean. Gainera, banaketak egiten baditugu, emakumezkoak kaltetuta irtengo litzateke seguruenik". Adinaren arabera bereizketa egitearen alde dago Romarate, baina taldeak gaur egun ez dauka jokalaririk gazte asko eta momentuz ez dute aldaketarik egingo. "Gainera, gazteentzat ondo dago jende nagusiarekin jokatzeko, maila altua dagoelako".

Guztira 40 jokalaritik gora daude talde bien artean, baina jende berria etorri gero ez dituzte kanpoan utziko. "Tokia eskainiko diegu, izan ere, gure asmoa beste talde bat ateratzea da maila baxuagoa duen jendearekin", Romaratek azaldu digunez. "Foballean jokatzeko inoiz aukerarik izan ez

dutenei kirol honetan hasteko aukera eman nahi diegu. Ikasteko eta, zergatik ez, goiko taldean jokatzeko".

LaLiga Genuine txapelketan

Adimen urriko taldeak, bestetik, LaLiga Genuine txapelketan eman du izena. 30 taldek osatzen dute liga, guztira lau jardunaldi jokatu dira eta

dagoeneko bi jokatu dira. "Jardunaldi bakoitzean hiru neurketa jokatu dira eta taldeak bi multzotan banatzen dira".

Lehenengo jardunaldia Tarragonan jokatu zuten ligako talde guztiek, baina bigarrenengoan multzo bateko neurketak A Coruñan jokatu ziren eta besteak Cordoban. Jokalari eibartarrek, adibidez, A Coruñan jokatu zuten. Hurrengo jardunaldia apirilaren 5, 6 eta 7an Rayo Vallecanoren kirol-hirian (Madrilen) eta apirilaren 28an Los Angeles de San Rafael hirian jokatu da (multzo bakoitzak toki batean); eta liga Valentzian amaituko da ekainaren 16an (talde guztiak batera).

Eibartarrentzat emaitza ez da garrantzitsuena, "baina badi garrantzia". Entrenamenduetan kontzeptu ezberdinak landu eta partiduetan gauzatzea da Eibarren helburua. "Azken finean gure jokalariek kirolariak dira, eta helburu horiek betetzen baditugu, pozik

gaude. Emaitza ona bada, hobeto". Foballean egiten ikastea, kirol-talde bateko kide izatea zer den ikastea eta taldeki-deekin elkarbizitzen ikastea da Romarateren asmoa. "Foballari sentitzea, azken finean".

Jokalariek eta entrenatzaileak gustora

Ander Romarate eta taldeko entrenatzaileak pozik daude orain arte egindako lanarekin. "Oso balorazio positiboa egiten dugu". Taldean dagoen giro ona azpimarratzen du arduradunak, "eta jokalariek oso gustora etortzen dira". Astean behin entrenatzen badira ere, jokalariek poliki-poliki foballeko kontzeptuak ikasi dituztela eta "taldeak itxura gehiago" duela dio koordinatzaileak. "Denok gara berriak proiektu honetan".

Iker Uribarren entrenatzaileak eta Atzegitik laguntza eskaintzen duen Carla Suarez teknikariak gidatzen dute taldea, baina Jose eta Haritz boluntarioen laguntza berebizikoa dela azpimarratzen du Romaratek. "Taldea oso sartuta daude, demaseko lana egiten dute, jokalariekin oso harreman ona daukate eta oso pozik daude eurekin". Romaratek koordinatzaile lanak egiten ditu, baina taldea oso gertutik jarraitzen du eta entrenamenduetara ere jotzen da. "Bulegoko lana ondo dago, baina niri eurekin egotea gustatzen zait".



Astean behin entrenatzen dute talde biak. **Eibar KE**



RAMON BEITIA: "Urteetako errugbilaria".

Euskaltzaindiak mendeurrena bete du eta hainbat ekitaldi artistiko antolatu ditu ospatzeko. Hilaren 20an, adibidez, Bernardo Atxaga idazleak eta Jose Kruz Gurrutxaga aktoreak 'Hitzaldia euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan' izeneko irakurraldi dramatizatua eskainiko dute Juan San Martin liburutegian 19:00etan. Orain dela hainbat urte Atxagak Martuteneko presondegian emandako hitzaldi batean du oinarria.

BERNARDO ATXAGA (idazlea):

“Saso zailetan bilgunea izan zen Euskaltzaindia”



- Nolako ikuskizuna eskainiko duzue liburutegian?

Paradisua eta katuak' edo 'Henry Bengoa Inventarium' ikusi dutenek jakingo dute azken 30 urteetan horrelako irakurketa bereziak egin ditudala. Kasu honek irakurketa dramatizatua egingo dugu Jose Kruz Gurrutxagak eta biok; berak aktorearen mugimendua jarriko du, drama, eta nik irakurketa egingo dut. Martutenen eman nuen hitzaldi baten inguruko hitzaldia izango da, hitzaldi bat beste hitzaldi baten barruan.

- Kasu hartan presoak izan ziren hitzaldiaren entzuleak. Literaturak nolako eragina izan dezake askatasuna kendu dietenen artean?

Literaturan eta arte guztietan nolatasuna da gakoa, gauzak nola egiten diren. Hori da torlojua, eta ondo kokatzen bada, no-nahi egin daiteke berba edozertaz. Hango publikoa era batekoa zen eta modu batean eman nuen hitzaldia, eta Eibarren beste modu batera emango dut. Martutenekoaz gain esperientzia gehiago izan ditut, baita zailagoak ere. Esate baterako, uda aldean euskal literatura berriari buruz antzeko gauza bat egiten badut, Mauzac presondegian zentratuko da kontakizuna. Frantziako gaizkile sexualen presondegi nagusia da. Euren aurrean hitzaldia eman nuen eta gogorra izan zen.

“Euskera batuaren erabakia funtsezkoa izan zen, hil ala bizikoa”

- Euskaltzaindiaren mendeurrena ospatzeko egin diren ekintzen barruan dago ikuskizun hau. Zer iruditzen zaizu 100 urte hauetan Euskaltzaindiak egin duen lana?

Garai zailetan bilgunea izan zen Euskaltzaindia. Ez ziren euskaltzale guztiak egon, baina euskal munduko intelektual funtsezkoenak egon ziren. (Resurrecion Maria de) Azkue egon zen, erraldoi bat; eta baita Koldo Mitxelena eta beste asko ere. Askotan iraganari begiratzen diogu eta iraganeko jendearen gainetik kokatzen dugu gure burua, bizirik gaudelako gehiago garela pentsatuz, baina Azkue baino gehiago izatea oso zaila da. Azkuek pultsuan atera zuen Euskaltzaindia eta gero jende asko eduki zuen atzetik. Euskera batuaren erabakia funtsezkoa izan zen, hil ala bizikoa, eta ondo hartu zen. Gaur egun, Euskaltzaindia gizarteratzen ari da. Euskaltzaindia ez da bakarrik gramatika edo

“Sortzaileen lanetatik kanpo, euskal kultura ikaragarri ahula da”

onomastikaz arduratzen den erakundea, gizarteaz ere kezkatzen da, eta horretarako literatura eskaintzen du.

- Euskaltzaindiaren 'Erløa' aldizkariaren zuzendaria izan zara eta 2018ko azaroan kaleratu zenuten azken zenbakia. Betiko esan digu agur?

Bai. Zenbaki borobilek atsegina ematen dute eta 12 zenbaki borobila da gure kultura. Aldizkariak erakutsi behar zuen gutia erakutsi duela uste dut. Produkzio, idazle eta sortzaileen aldetik euskal kultura nolabaiteko indar bat dagoela erakutsi du. Aldi berean erakutsi du sortzaileen lana albo batera uzten bada, hortik aurrera euskal kultura oso gauza gutxi daudela, ikaragarri ahula dela. Han eta hemen esaten ari naiz, aspertzen naizen arte, euskal kultura gabiltzanon arazoa ez dela produkzioa, banaketa baizik. Egindako hainbat gauza eder nola iritsi, nola erakutsi eta nola jendeak bereganatu da arazoa. Oso gauza berezia da. Eibarko etxe batean gauza eder bat idatzi daiteke, eta aldameneko etxean ez dute horren berririk edukiko, adibidez. Hori da guri gertatzen zaiguna eta oso arazo larria da. 'Erleak' aldizkariak hori erakutsi du, ikusezina izan da de facto. Zuzendari bezala esan dezaket, batez ere beste askok idatzi dutelako, oso aldizkari aparta izan dela. Paulo santuak esan zuen bezala, hau da milizia lurraren gainean.



ALBERTO EGURROLA
(marrazkilaria)

- Eibarko kaleak marraztu dituzu. Zein da zure txokorik kuttunena?

Toribio Etxebarria kaleko marrazkia egin nuen lehenik eta hori izan zen proiektuaren hasiera, orduan konturatu nintzelako honek jarraipena izan zitekeela. Ondoren Eibarko txoko ezberdina bilatzen saiatu nintzen, batez ere zerbait ezberdina eskaintzeko asmoz. Arkatza ondo geratzen zaio Eibar bezalako gunen industrial bati.

- Beraz, kasualitatez hasi zenuen proiektua ala aurretik pentsatutako zerbait izan zen?

Buenos Aires tabernan asko egoten naiz eta inguruko giroa islatu nahi nuen. Ez ditut Eibarko kaleen marrazki asko ikusi eta arrazoi interesgarria zela iruditu zitzaidan. Kasualitatez, Oscar Garcia Gisasolak Eibarko kaleen margolanak (akuarelak) erakutsiko ditu hilaren 17ra arte Untzagako Jubilatutako Etxean.

- Zergatik Eibarko kaleak? Zer daukate?

Eibartarrak garelako! George Hillary mendizaleari galdetzen zioten zergatik joaten zen mendira. "Hor daudelako", izaten zen bere erantzuna. Kasu honetan berdin. Eibartarrak gara eta hor ditugu herriko kaleak, beste barik.

- Non dago Eibarren edertasuna?

Azitaingo gasolindegian ere edertasuna badago. Zutabe zogarriak ditu!

"Azitaingo gasolindegian ere badago edertasuna"

Alberto Egurrolak Eibarko kaleak zehatz-mehatz marrazkietan islatu ditu eta arkatza besterik ez du erabili horretarako. Baita pazientzia ere, pazientzia asko. Zortzi marrazki egin ditu eta Fermin Calbeton kalean dagoen Kokojetan arkitektura estudioan egongo dira ikusgai hilaren 22ra arte. Marrazkilaria eta idazle eibartarra pozik dago erakusketak izan duen harrerarekin.

- Marrazki hiperrealistak egin dituzu. Nolako lana dago atzean?

Errealitatea zehazki islatzen saiatu naiz. Argazkiak egin eta horik marrazkiak atera ditut. 30 ordu inguru behar izan ditut marrazki bakoitza egiteko. Pazientzia edukitzea oso beharrezkoa da.

- Eta borragoma asko?

Baita ere, baina pazientzia izatea da garrantzitsua.

- Azken erakusketa 2012an eskaini zenuen Topalekuan. Bolidak marrazten duzu edo beste barik marrazkirik egin ez duzulako pasatu dira zazpi urte?

2012ko erakusketan artearen maisuen lanak erreproduzitzen saiatu nintzen, baina erakusketa hau guztiz ezberdina da. Beti-danik marraztu dut eta erakusketa egiteko aukera nuela ikusi dut. Marrazkilaritza ez da nire ogibidea, beraz, lasai hartzen dut. Orain idazketan nago zentratuta, liburu bat idatzi dudalako.

- Zeren inguruan?

Gogoeta liburua da, aforismoak biltzen ditut. Bestetik, kontakizun laburrak ere idatzi ditut.

- Kokojetan arkitektura estudioan eskaintzen duzu erakusketa. Zer moduzko harrera izan du?

Oso toki egokia dela iruditzen zait; batez ere, arkitektura estudioa izanik, mota honetako marrazkientzat. Jendea etorri da eta beste batzuek eskaparatetik ikusi dituzte lanak.

Igelaren Banda hartuko du Coliseoak gaur iluntzean

Gaur 20:30ean hasiko da Igelaren Bandaren kontzertua Coliseoan. 2011. urteko udaberrian abiatu zen taldea Bixente Martinez eibartarrak, Hasier Oleagak eta Amaiur Cajaravillek osatzen dute gaur egun. 2013. urteko martxoan aurkeztu zuen "Preguntatxo bat" izeneko diskoa (Elkar) eta 2015ko udazkenean "Debalde festa" izeneko diskoa (Elkar). Diskoa bertsolariek erabiltzen dituzten doinuei dedikatuta dago. Igelaren Bandari inprobisazioa asko gustatzen zaio, bertsolarie bezala, eta hortik lan horren arrazoietako bat. Taldekideen berbetan, "Debalde festa" honetan hitzik gabeko bertsoak egin nahi izan ditugu. Modu guztiz librean tratatu ditugu doinuok, inprobisazioari leku handia utziz. Gure kontzertuetan ere leku handia du inprobisazioak, eta horrek bihurtzen ditu bereziak, beti ezberdinak direlako". Une honetan kantu berriak ari da prestatzen Igelaren Banda, eta horien artean Izu-kaitz Eibarko taldeko kantu batzuk daude, oraingo zuzenekoetan jotzen ari direnak. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).





"7 años" antzezanaren bigarren funtzioa antolatu dute

Otsailaren 26an hasiko diren Eibarko XLII. Antzerki Jardunaldien barruan eskainiko den "7 años" antzezanaren bigarren funtzioa egitea adostu dute antolatzaileek, horretarako aukera ikusi eta gero. Madrilo Producciones Teatrales Contemporaneas taldearen antzezlana martxoaren 24an, 20:30ean taularatuko dute Coliseo antzokian estreinekoz. Eta bigarren funtzioa, berriz, martxoaren 25ean izango da, 20:30ean Coliseoan. Bigarren emanaldirako sarrerak gaur ipiniko dituzte salgai Coliseoko leihatilan eta Kutxabank-en, arratsaldeko 17:30etik aurrera.

Txirrindularitzari eskainitako doinuak joko dituzte domekan

Eibarko Txirrindularien Elkarteak asteburu honetan hasiko du denboraldia, ohikoa den moduan txirrindularitzari eskainitako musikarekin. Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik domekan egingo den "X. Uda-berri Kontzertua" 12:30ean hasiko da, Coliseo antzokian. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako piezak joko dituzte: "Txirrindularien Txirrinak" (polka, Carlos Sanchez Barba), "Las ruinas de Atenas" (Turkiako martxa, L. van Beethoven), "A Salzburg impression" (deskriptiboa, D. Stratford), "Marcha militar nº 1" (Schubert), "Amadeus Favourites" (Medley, K. Mark) eta "Caballeria Liger" (obertura F. von Suppé). Bestalde, eguraldi ona eginez gero, kontzertuaren aurretik, 11:15ak aldera, Bandako musikariek kalejira egingo dute, Untzagatik abiatuta.



Pella eta torrada ikastaroa

Untzagako jubilatutako etxekoek sukaldaritza tailerra antolatu dute, pella eta torradak nola egiten diren ikasi nahi dutentzat. Ikastaroa eguaztenean izango da, 16:30ean Portaleko sukaldean eta irakaslea Pili Diego izango da. Izena emateko jubilatutako lehen solairura, bulegora joan behar da (Arrategatik galdetu).

Aratosteetarako lehiaketak

Aurten ere hainbat lehiaketa antolatu dituzte Aratosteetarako.

Udalaren eskutik "Aratosteetan ondoen apaindutako taberna" lehiaketako epaimahaia martxoaren 1ean joango da izena eman duten tabernak ikustera. Eta "Aratosteetako koadrilen kalejira" lehiaketa, berriz, martxoaren 2an (zapatua) egingo dute, 12:30ean. Batean zein

bestean parte hartzeko interesatuek otsailaren 28ra arteko epea daukate izena emateko. Horretarako eta informazio gehiago eskatzeko Pegorara jo daiteke. Horrez gain, Arrate Kultur Elkartearen eskutik XXII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa egingo da Aratosteetako argazkiekin. Partehartzea librea izango da, zaletu guztientzat. Informazio gehiago nahi izanez gero 943 202 299 edo 638 284 912 telefono zenbakietara deitu daiteke edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.



MATEA PETRALANDA PUJANA

(2019ko otsailaren 6an hil zen)



SENIDEEN IZENEAN, ESKERRIK ASKO
hileta-elizkizunera joan eta samin
agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



Bi magia ikuskizun hartuko ditu Coliseoak hilaren 23an



Magoak eta trikimailuak gustatuz gero, otsailaren 23an magiarekin gozatzeko aukera aparta izango da Coliseoan, egun horretarako antolatu dituzten bi ikuskizunei esker. Arratsaldeko 17:00etan "Liluraren laborategia", familia guztiarentzako ikuskizuna hasiko da. Ordubetik inguruko iraupena duen saioan, Ladelai Magoaren trukoak prestatzen dituzten bi zientzilariren laborategian sartzeko aukera izango du publikoak: lebitazioak, agerpenak, hipnosia... eta beste efektu magiko batzuk tartean, ikusleak liluratuta geldituko dira. Sarrerak 5 euro balio du.


Eta 20:30ean, berriz, "Spectacular Magic", ikuskizunik berriena taularatuko du Sun Mago ezagunak. Publiko guztiarentzako moduko ikuskizuna da, eta bertan historiako mago handiek (Houdini, Copperfield, Harry Blackstone, Juan Tamariz) sortu zituzten ilusioak gogoraziko dira, Las Vegaseko ikuskizunen estilora. Sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Musika eta robotika tailerretarako matrikulazioa astelehenean hasiko da

Eibarko Udalak bi tailer antolatu ditu martxorako. "Musikala sortzen" izenekoa Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat izango da eta euskeraz emango dute, Portalean, martxoaren 9, 16, 23 eta 30ean, 17:00etatik 19:00etara. Ikastaroaren prezioa 16 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat eta 32 eurokoa Eibartik kanpokoentzat.

Eta Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoentzat, berriz, "Robotika LEGO Mindstorms EV3" izeneko ikastaroa prestatu dute.



Hau ere euskeraz izango da, egun beretan, baina adinaren arabera bi ordutegitan izango dira klaseak (16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara), Jazinto Olabeiko ludotekan. Prezioa 20 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat eta 50 eurokoa Eibartik kanpokoentzat. Kasu bietan, matrikula egiteko epea otsailaren 18tik 27ra bitartean egongo da zabalik, Pegoran.



LH 5 eta LH 6 mailako ikasleentzat
17:00-19:00
Martxoak 9, 16, 23, 30
Izen ematea: PEGORAN otsailaren 18tik 27ra

Koldo Zuazoren ikerketak ingelesezko liburu batean bildu dituzte

Londres eta New Yorkeko Routledge argitaletxe ospetsuak Koldo Zuazo EHUko katedradunaren beste lan bat argitaratu du,



Koldo Zuazo

Standard Basque and its Dialects izeneko hain zuzen. Eibartarrak azken 30 urteetan egin dituen ikerketen berri ematen du liburu horrek. Nolabait, Euskal Herriko erdal jendea gogoan idatzi zuen El euskera y sus dialectos liburuaren moldaketa da. Gregor Benton Cardiffeko Unibertsitateko irakasleak itzuli du liburua ingelesera; galesak, gainera, Eibar KE-ren kapital zabalkuntzan ere lagundu zuen kluba 1. mailara igo zenean. Euskalkiak eta euskara batua ardatz hartuta, liburua sei atalietan egituratuta dago.



STANDARD BASQUE AND ITS DIALECTS


Koldo Zuazo





Robby Peoplesek joko du bihar ERMUAN

Estatu Batuetako armonizistak bihar eskainiko du kontzertua Lobiano jauregian, 20:00etan hasiko den emanaldian. Euskal Herritik egiten diharduen biran The Congress hegoaldeko musika eskaintzen duen rock laukoteak laguntzen dio. Virginiako Richmond herriko taldea The Band eta Little Feat taldeekin parekatu dute eta eskaintzen duten musika Canned Heat-en boogiea eta Tom Waits-ekin lotzen dute blues-adituek.



"Ultimo tren a Treblinka" ELGOIBARREN

Gaur 20:30ean "Ultimo tren a Treblinka" Vaiven Producciones taldearen antzezlari arrakastatsua taularatuko dute Elgoibarren, Herriko Antzokian. Mireia Gabilondok zuzentzen duen lan horretako istorioa Varsoviako umezurtegi batean kokatzen da, 1942an, 200 haur judutarren bizilekuan. Janusz Korczak mediku eta pedagogoak, haurrekin eskuz esku jardunez, konstituzio bat sortu zuen, bere lege, araudi eta zigorkodearekin. Halako batean umezurtegitik alde egin beharko dute, Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trenean... Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Gazte Txartelarekin).

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Matea Petralanda Pujana. 96 urte. 2019-II-6.
- Luis Taboada Cid. 75 urte. 2019-II-8.
- Jesus Perosanz Minguez. 95 urte. 2019-II-10.
- Raul Calvo Sobral. 68 urte. 2019-II-10.
- Jose Barragan Urrutia. 63 urte. 2019-II-11.
- Domingo Arrieta Garate. 69 urte. 2019-II-13.

jaiotakoak

- Rawan Atmani Ziani. 2019-II-6.
- Ane Marcos Bolinaga. 2019-II-8.
- Leo Gabilondo Murga. 2019-II-8.
- Paule Diaz de Corcuera Arrillaga. 2019-II-11.

farmaziak

- Barixakua 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 16
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Domeka 17
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astelehena 18
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 20
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguena 21
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

7	5	9	1	4	6	3	2	8
4	1	6	3	8	2	9	5	7
2	8	3	7	9	5	4	6	1
6	2	4	8	1	9	7	3	5
1	7	5	4	2	3	6	8	9
3	9	8	5	6	7	2	1	4
9	3	1	6	7	8	5	4	2
8	6	7	2	5	4	1	9	3
5	4	2	9	3	1	8	7	6

	7			2		8	9	
			4		7			
	3			7	1	6		
	4			7				3
			2		6			
2				8			1	
	9	4	5				3	
		5		2				
8	2		4					9

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitela.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Txiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 15

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze-ariketak. Portalean.

11:00. Jardiñetan. San Andres egoitzan.

SAN BALENTIN

17:30. Txokolate-jana, bikote nagusienari omenaldia, gitarra-taldearen emanaldia eta oparien zozketa. Untzagako jubilatuetxean (kafetegian).

KONTZERTUA

20:30. Igelaren Banda. 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 16

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

BISITA GIDATUA

17:00. Museoko erakusketara, euskeraz (18:30ean gazteleraz). Doan. Eibarko Armagintzaren Museoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunereikia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "La Bella y la Bestia" (2017) filmaren emanaldia. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

POESIA

18:00. Poesiari eskainitako saioa eta Dory Lansorenaren "Soñador de nubes" liburuaren aurkezpena. Itzamna akademian (Bittor Sarasketa, 2).

MUSIKA

23:30. "The Owl Project+ Kvalvika" taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

Domeka 17

KONTZERTUA

12:30. "X. Udaberrri Kontzertua", Eibarko Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunereikia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Astlehena 18

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuetxean eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 19

IKASTEN

10:00. "Zenbaki irrazional interesgarriak" hitzaldia, Jose Francisco Gutierrezen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.



IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.

17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

BILERA

19:30. Errebal Plataformak deitutako bilera, auzokideentzat. Untzagako jubilatuetxean.

Eguaztena 20

IKASTEN

09:15. Ibilaldia: Apotzaga-Gellao-Galarza (Aretxabaleta). Bazkaria eraman. Autobusaren irteera, Ego Gaietik.

19:00. Luzatze ariketak. Biodantza ikastaroa. Portalean.

MERKEALDI AZOKA

10:00/20:00. Neguko Merkealdien Azoka. Toribio Etxebarria kalean.

IKASTAROA

16:30. Pella eta torrada ikastaroa, Untzagako jubilatuetxean eskutik. Portaleko sukaldian.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Hazkuntzaren alderdiak", Baillararen eskutik. Portalean.

EUSKALZAINDIAREN MENDEURRENA

19:00. "Hitzaldia euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan" irakurraldi dramatizatua, Bernardo Atxaga eta Jose Kruz Gurrutxagaren eskutik. J. San Martin liburutegian.



IKASTAROA

19:00. Batido energetikoen ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.



EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 21

IKASTEN

10:00. "Demokrazia eta komunikabideak" hitzaldia, Miguel Arroitauregiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

MERKEALDI AZOKA

10:00/20:00. Neguko Merkealdien Azoka. Toribio Etxebarria kalean.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroenen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Otsailaren 17ra arte:

– OSCAR GARCIA GISASOLAREN EIBARKO AKUARELAK (Untzagako jubilatuetxean)

Otsailaren 28ra arte:

– DANIEL ARANBURUREN "DE TODO UN POCO" ARGAZKIAK (El Ambigü taberna)

– F11 TALDEAREN ARGAZKIAK (Depor taberna)

– KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

Martxoaren 3ra arte:

– "DIKOTOMIA" KEIXETAREN PINTURA ETA ZERAMIKAK (Portalea)

Otsailaren 21etik martxoaren 31ra arte:

– "EIBARKO BELOMOTORRAK" (Eibarko Armagintzaren Museoan)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, IBAI, hillaen 21ian urtetxua beteko dozu-eta. Ondo-ondo pasatuko dogu. Aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, HELENA, haraiñegun 6 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Martinen partez.




Zorionak, JON, mutil haundi, bixar 4 urte beteko dozu-eta. Oso ondo pasau eguna! Milla musu etxekuen partez.



Zorionak, ENE, etzi 33 urte egingo dozuz-eta. Urte asko zurekin ospatzen. Espero dot holan segitzia. Asko maite zaitut. Janire.



Zorionak, LUKEN! Aste honetan urtetxua bete dozulako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Telmoren partez.




Zorionak, MADDI!!!, domekan 2 urte beteko dozuz-eta!!! Patxitua etxeko printzesarentzat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.




Zorionak, MARA, hillaen 20xan 5 urte egingo dozuz-eta. Musu potoluak zure famelixaren partez. Maite zaitugu!!



Zorionak, LEIRE Fernández Lasuen, urtarrillian urtiak egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez, printzesa.



Zorionak, IRATI!!! Gaur 13 urte betetzen dozuz-eta. Musu erraldoia zure famelixaren partez!!



Zorionak, JON!!!, haraiñegun 7 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, UXUE!, atzo 4 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, LIBE!!!, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Segi holan, beti bezain alai. Famelixaren partez.



Zorionak hiru illeapaintzaille ederreneri zeuen urtebetetzian! Onenak zarie! Musu haundi bana zeuen lagun partez.



Zorionak, GARAZI!!!, aurreko domekan urte batzuk bete zenduaz-en-eta!!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

16an: 19:45, 22:30

17an: 20:00

18an: 20:30

"La favorita"

Zuzendaria: Yórgos Lánthimos

(2 ARETOAN)

16an: 17:00, 19:45, 22:30

17an: 17:00, 20:00

18an: 20:30

"La clase de piano"

Zuzendaria: Ludovic Bernard

(ANTZOKIAN)

16an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

17an: 17:00^(1 Aretoa), 20:00

18an: 20:30

"Alita. Angel de combate"

Zuzendaria: Robert Rodriguez

(ANTZOKIAN)

16an: 17:00

17an: 17:00

"Las aventuras del pequeño Colón"

Zuzendaria: Rodrigo Gava



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
– Pisua salgai Barrena kalean, Mutualia parean. 2 logela. Guztia kanpora begira, balkoiarekin. Berritua eta guztiz jantzia. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 135.000 euro. Garaje itxia aukeran (15.000 euro). Tel. 679-867543 eta 660-805301.

1.2. Errentan

– Eibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-450354.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Gazteendako lokala alokagai Jardinetan kalean. 132 m². Legezstatua eta argitsua. Tel. 656-756485.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 602-405039.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 602-406981.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-501003.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-405748.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-115646.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-272926.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 642-609678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-134601.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 666-199007.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-673904.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-535925.
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.
– Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-133720. Indhira.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-189294.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-995976.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-452026.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-215212.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-265561.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, pegorak garbitzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 643-158904.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-259243.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-375766.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-579736.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-768682.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 612-539941.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta asteburuetan ere. Tel. 617-896989.
– Eibarko 18 urteko neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Euskara goi maila eta ingeles ertaina. Tel. 666-843393.
– Emakumea eskaintzen da pisuak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-406654.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia eta formakuntzarekin. Tel. 660-511781. Elena.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza sozio-sanitarioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-781722.
– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzalanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 603-292970.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 659-513528.
– Emakumea eskaintzen da 14:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-800266.

4.2. Langile bila

– Saltzailea behar da arratsaldean (lanaldi erdian) lan egiteko. Bidali curriculum-a: raulclosed@yahoo.com edo Closed dendarra (Estaziño, 10).
– Kamarera/o behar da Eibarren asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 622-142679.
– Langilea behar da Eibarko No+Vello estetika zentroan. Estetizista-titulua, laser depilazioan edo IPL-an esperientzia, merkatala dohaia eta eusker maila baloratuko dira. Bidali curriculum-a: eibaregogain@nomasvello.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBH 4ko ikasleak laguntza-klaseak behar ditu hizkuntza- eta irakur-gaietarako. Tel. 652-712639.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

– Artzi txakurkumeak oparitzen dira, ondo zaintzeko. Tel. 695-716229 eta 943-203205.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



2019ko martxoaren 12an, asteartea - Portalea kultur etxea - EIBAR



EUSKARAREN TRANSMISIOA

IX. MINTEGIA

Izen-ematea: otsailaren 18tik martxoaren 7ra arte

www.etakitto.eus 943 20 09 18 normalizazioa@etakitto.eus

- 08:45 - 09:00.** Akreditazio eta dokumentazioa.
- 09:00 - 09:15.** Ongi- etorria.
- 09:20 - 10:05.** "Euskara eta inmigrazioa. Errealitatea eta usteak" .
Gorka Moreno. Euskal Inmigrazioaren Behatokiko Zuzendaria.
- 10:10 - 10:55.** "Ahozko ondarea hezkuntzara bideratzen".
Idoia Etxeberria. Badihardugu Euskara Elkarte.
- 11:00 - 11:45.** "'GU' definizioen eta ekintzen kontua da".
Petra Elser. Banaiz Bagara Elkarteko Zuzendaria.
- 11:45 - 12:10.** "Salto! Gazteen erabilera aisialdian"
Jokin Uranga. UEMA.
- 12:15 - 12:35.** ATSEDENALDIA.
- 12:35 - 12:40.** ARGAZKIA.
- 12:45 - 13:10.** "EuskarAbentura: Bizipenetatik eraldatzen".
Imanol Zabaleta eta Irati Labaien. EuskarAbentura elkarteko kideak.
- 13:15 - 13:35.** "Enigma bizia: turismotik euskara transmititzen".
Josune Herrarte eta Esti Irureta. Zumaiako euskara teknikaria eta turismo teknikaria.
- 13:40 - 14:20.** MAHAINGURUA: Jokin Uranga, Petra Elser, Idoia Etxeberria.
Dinamizatzaile: **JAIME ALTUNA.**
- 14:30.** AGURRA.
- 14:35.** BAZKARIA.

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es